

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA

2014/2015 Ikasturtea

Urteko Kontuen Ikuskaritza lana NIA- ES Arauetan oinarrituz: Guremugikor S.L. enpresaren kasua

Egilea: Kepa Fernandez de Antona Garmendia

Zuzendaria/Tutorea: Izaskun Ipiñazar Petralanda

Bilbon, 2015eko ekainaren 24an

VºBº DIRECTOR/A

Izaskun Ipiñazar Petralanda

VºBº AUTOR/A

Kepa Fernandez de Antona



AURKIBIDEA

1.	LANAREN LABURPENA	8
2.	SARRERA.....	8
3.	LANAREN HELBURUA	10
4.	METODOLOGIA	10
5.	IKUSKARITZA LANAREN ENKARGUA	12
	5.1 IKUSKARITZA LANAREN ESKAERA.....	12
	5.2 AURRETIAZKO BERRIKUSKETA.....	13
	5.3 AGINDU GUTUNA.....	13
6.	IKUSKARITZAREN PLANGINTZA	14
	6.1 ERAKUNDEAREN ETA SEKTOREAREN BEREZITASUNEN EZAGUPENA	14
	6.1.1 BARNE FAKTOREAK.....	14
	6.1.2 KANPO FAKTOREAK	15
	6.2 EBALUAKETA ANALITIKOA	16
	6.2.1 EPE LABURREKO EGOERA FINANTZARIOAREN ANALISIA.....	16
	6.2.2 EPE LUZEKO EGOERA FINANTZARIOAREN ANALISIA	17
	6.2.3 ERRENTAGARRITASUN EKONOMIKOAREN ANALISIA	18
	6.2.4 ERRENTAGARRITASUN FINANTZARIOAREN ANALISIA	19
	6.2.5 ALDAKUNTZA ESANGURATSUAK BALIO ABSOLUTU ETA	
	ERLATIBOETAN	20
	6.3 BARNE KONTROLAREN ULERMENA	21
	6.3.1 KONTROL INGURUA	21
	6.3.2 SOZIETATEAK ARRISKUA BALORATZEKO DUEN PROZESUA.....	22
	6.3.3 INFORMAZIO FINANTZARIOARENTZAT GARRANTZITSUA DEN	
	INFORMAZIO SISTEMA.....	23
	6.3.4 IKUSKARITZARAKO NABARMENAK DIREN KONTROL EKINTZAK.	23
	6.3.5 KONTROLEN JARRAIPENA.....	24
	6.4 GARRANTZI ERLATIBOA.....	24
	6.5 IKUSKARITZA ARRISKUAREN BALORAZIOA.....	26
7.	LANAREN GAUZAPENA ARLO BAKOITZEKO.....	28
	7.1 IZAKINAK (5. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 23400)	29
	7.2 BEZEROAK (6. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 23300)	29

7.3 DIRUZAINZA (7. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 23100)	30
7.4 ONDARE GARBIA (8. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 25100).	31
7.5 ZOR FINANTZARIOA (9. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 24400).....	31
7.6 HORNITZAILEAK (10. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 24200)	32
7.7 SALMENTAK (11. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 26100)	33
7.8 EROSKETAK (12. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 26300).....	33
7.9 PERTSONAL GASTUAK (13. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 26400).....	34
7.10 USTIAPENENKO BESTELAKO GASTUAK (14. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 26500)	34
7.11 EKITALDI-ITXIERAREN ONDORENGO GERTAERAK.....	35
7.12 ADIERAZPEN GUTUNA	36
8. IKUSKARITZA TXOSTENA	36
9. BIBLIOGRAFIA	39
10. ERANSKINAK.....	42

TAULA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

• TAULAK

Taula 1: Guremugikor S.L.ren epe laburreko egoera finantzarioaren analisisa (2014/2013)....	16
Taula 2: Guremugikor S.L.ren epe luzeko egoera finantzarioaren analisisa (2014/2013)	17
Taula 3: Guremugikor S.L.ren errentagarritasun ekonomikoaren analisisa (2014/2013)	18
Taula 4: Guremugikor S.L.ren errentagarritasun finantzarioaren analisisa (2014/2013).....	19
Taula 5: Ikuskaritzaren arrisku orokorraren kalkulurako taula orientagarria	27

• IRUDIAK

Irudia 1: Guremugikor S.L.ren antolakuntza egitura.....	15
Irudia 2: Arrisku eta ikuskaritza prozedimenduen matrizea.....	28

NIA-ES ARAUEN ETA SIGLEN AURKIBIDEA

- **NIA-ES ARAUAK**

NIA-ES 200: “Objetivos globales del auditor independiente y realización de la auditoría de conformidad con las Normas Internacionales de Auditoría”.

NIA-ES 210: “Acuerdo de los términos del encargo de auditoría”.

NIA-ES 300: “Planificación de la auditoría de los Estados Financieros”.

NIA-ES 315: “Identificación y valoración de los riesgos de Incorrección material mediante el conocimiento de la entidad y de su entorno”.

NIA-ES 320: “Importancia relativa o materialidad en la Planificación y Ejecución de la Auditoría”.

NIA-ES 330: “Respuestas del auditor a los riesgos valorados”.

NIA-ES 450: “Evaluación de las incorrecciones identificadas durante la realización de la auditoría”.

NIA-ES 500: “Evidencia de Auditoría”.

NIA-ES 501: “Evidencia de Auditoría-Consideraciones específicas para determinadas áreas”.

NIA-ES 505: “Confirmaciones externas”.

NIA-ES 520: “Procedimientos analíticos”.

NIA-ES 530: “Muestreo de auditoría”.

NIA-ES 560: “Hechos posteriores al cierre”.

NIA-ES 580: “Manifestaciones escritas”.

NIA-ES 700: “Formación de la opinión y emisión del informe de auditoría sobre los Estados Financieros”.

NIA-ES 705: “Opinión modificada en el informe emitido por un auditor independiente”.

NIA-ES 706: “Párrafos de énfasis y párrafos sobre otras cuestiones en el informe emitido por un auditor independiente”.

- **SIGLAK**

BEZ: Balio Erantsiaren Gaineko Zerga.

CIREF: Cifra Importancia Relativa para los Estados Financieros en su conjunto

CIRET: Cifra de Importancia Relativa para la Ejecución del Trabajo.

EAZG: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua.

EE: Ekitaldiko Emaidza.

EF: Errotazio Fondoa

EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea.

EUR: Euro.

FIFO: First In, First Out.

FOB: Free On Board.

GF: Gastu Finantzarioak.

ICAC: Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.

ICC: International Chamber of Commerce.

ICI: Importe de las Incorrecciones Claramente Insignificantes.

INCOTERM: International Commercial Terms.

KF: Kepa Fernandez de Antona.

KPO: Kontabilitate Plan Orokorra.

LP: Lan Paperak.

NIA: Normas Internacionales de Auditoría.

NIA-ES: Normas Internacionales de Auditoría adaptadas en España.

NTA: Normas Técnicas de Auditoría.

OZ: Oinarri Zergagarria.

PFEZ: Pertsona Fisikoen Gaineko Zerga.

PG: Kostu Finantzariodun Zorra.

RA: Riesgo de Auditoría.

RC: Riesgo de Control.

RD: Riesgo de Detección.

REA: Registro de Economistas Auditores.

REGA: Registro General de Auditores.

RI: Riesgo Inherente.

ROAC: Registro Oficial de Auditores de Cuentas.

S.A.: Sozietate Anonimoa.

S.L.: Erantzukizun Mugatuko Sozietalea.

SABI: Sistema de Análisis de Balances Ibéricos.

t: Sozietateen Gaineko Zerga Tasa.

TC: Boletín de Cotización a la Seguridad Social.

UPV: Universidad Pública del País Vasco.

ERANSKINEN AURKIBIDEA

1.	Eranskina: Urteko Kontuak.....	42
2.	Eranskina: Agindu Gutuna	48
3.	Eranskina: Egoera Balantze eta Galdu Irabazien Kontu birsailkatua.....	50
4.	Eranskina: Barne Kontrolaren ulermenerako galdera sorta	52
5.	Eranskina: Izakinen arloa	53
6.	Eranskina: Bezeroen arloa	64
7.	Eranskina: Diruzaintzaren arloa.....	74
8.	Eranskina: Ondare Garbiaren arloa.....	82
9.	Eranskina: Zor Finantzarioaren arloa.....	86
10.	Eranskina: Hornitzaileen arloa.....	91
11.	Eranskina: Salmenten arloa	105
12.	Eranskina: Erosketen arloa.....	112
13.	Eranskina: Pertsonal Gastuen arloa	115
14.	Eranskina: Ustiapeneko Bestelako Gastuen arloa	122
15.	Eranskina: Proposaturiko doikuntz eta birsailkapenen laburpena	136
16.	Eranskina: Urteko Kontu doituak.....	137

1. LANAREN LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honek mugikorren salerosketan jarduten duen Guremugikor S.L. fikziozko enpresaren 2014 ekitaldiko kontuen ikuskaritzaren prozesu osoa azaltzen du. Kontuen ikuskaritza burutuko duen auditorea Kepa Fernandez de Antona Garmendia da. Azken hau Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren (ICAC) baimena duen pertsona fisikoa da eta Kontu Ikuskarien Erregistro Ofizialean (ROAC) inskribatua jardularien atalean. Era berean, Kepa Ekonomialari Ikuskarien Erregistroan (REA) inskribatuta dago.

Ikuskaritzako lana egiteko aplikagarria izango den arautegia hurrengoa izango da: Kontuen Ikuskaritzaren Legea¹ eta hau garatzen duen Araudia², ICAC-en Ebazpenak, ICAC-ek egokituriko Kontuen Ikuskaritzarako Nazioarteko Arauak (NIA-ES³) eta Kontuen Ikuskaritzarako Arau Teknikoak (NTA⁴), azken hauek NIA-ES-ak arautzen ez dituzten arloetan.

Lanaren egiturari dagokionez, lau zatitan banatu dugu. Ikuskaritza prozesua agindu gutunarekin hasiko da, onartzen denean ikuskatze-kontratu bihurtuko denarekin. Une berean, aurretiazko berrikusketa egin eta Guremugikor S.L. 2014 ekitaldiko Urteko Kontuak zergatik ikuskatu behar dituen aztertuko dugu.

Bigarrenik, ikuskaritza plangintza osatuko dugu, kontuen ikuskaritzaren prozesu osoan zehar gida izango duguna eta hurrengo aspektuak barne hartuko dituen: erakundearen eta sektorearen berezitasunen ezagupena, ebaluaketa analitikoa, barne kontrolaren ulermena, garrantzi erlatiboa eta ikuskaritza arriskuen balorazioa. Hirugarrenik, behin ikuskaritza plangintza ezarrita, sozietatearen 2014 ekitaldiko urteko kontuak osatzen dituzten arlo bakoitzerako ikuskaritza egitarauak egingo ditugu, bertan ikuskaritzako nabaritasun nahiko eta egokia lortzeko prozedurak burutuz.

Bukatzeko, ikuskaritza txostena prestatuko dugu. Azken honen bidez, enpresaren urteko kontuek 2014 ekitaldiko ondarearen, emaitzen, egoera finantzarioaren eta diru-fluxuen irudi fidela aurkezten duten ondorioztatuko dugu.

2. SARRERA

Dagoeneko lau urte igaro dira Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua hasi nuenetik UPV/EHU-ko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean. Lau urte hauetan zehar, ugariak izan dira ikusi eta ikasi ditudan irakasgai ezberdinak, eta ez dut zalantzan jartzen guztiak oso

¹ Texto Refundido de la Ley de Auditoría de Cuentas, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2011, de 1 de julio.

² Reglamento que desarrolla el Texto Refundido de la Ley de Auditoría de Cuentas, aprobado por el Real Decreto 1517/2011, de 31 de octubre.

³ Resolución de 15 de Octubre de 2013, del ICAC, por la que se publican las nuevas Normas Técnicas de Auditoría, resultado de la adaptación de las Normas Internacionales de Auditoría para su aplicación en España (NIA-ES).

⁴ Resoluciones ICAC 20.3.2014 (Relación entre auditores).

aberasgarriak izan direla nire formakuntza eta etorkizunerako. Hala ere, irakasgai edo alor bat azpimarratzekotan, kontabilitatea kokatuko nuke guztien gainetik.

Betidanik piztu izan du kontabilitatearekin lotura duen edozerk interesa niregan. Hori dela eta, ez ninduen batere harritu bigarren mailaren bukaera aldean Kontabilitate eta Informazio Finantzarioaren espezialitatea aukeratzea. Gaur egun gainera, asko eskertzen dut nik hartutako erabakia. Izan ere, espezializazio honekin gauza berri asko ikasteaz gain, kontabilitatearekin lotura duten irakasgai guztiak batzen dituen ezagutzeko aukera izan nuen: Kontuen Ikuskaritza.

Hasieratik konturatu nintzen irakasgai honek nire jakin-min guztiak asebetetzen zituela. Gehien interesatzen zitzaizkidan irakasgai guztiek eskaintzen zituzten ezagupenak elkartzen zituen, aplikazio praktikoa zein teorikoa. Beste hitz batzuetan, nire gustuko irakasgaia aurkitu nuen. Era honetan, aukera paregabea iruditzen zitzaidan ikasketak Kontuen Ikuskaritzarekin erlazionaturiko Gradu Amaierako Lana eginez bukatzea.

Nire interes edo curiositate pertsonalez gain, Gradu Amaierako Lanaren gaia aukeratzeko orduan, kontuen ikuskaritzak gaur egun daukan garrantziak eta bizi duen egoerak asko baldintzatu zuen nire erabakia. Informazio ekonomiko finantzarioari buruzko gardentasunean eta fidagarritasunean eskaintzen duen ekarpena dela eta, kontuen ikuskaritzak paper oso garrantzitsua jokatzen du gaur egungo gizartean eta merkatuen funtzionamenduan (García, S. 2013).

Azken urteetan publiko egin diren eskandalu finantzario zein iruzur etengabeak kontu ikuskaritzaren irudiari kalte handia egin diote, berarengan gizarteak zuen konfiantza eta sinesgarritasun maila murriztuz era nabarmenean (García eta Ipiñazar, 2014). Honen adibide daukagu 2000. urtean eztanda egin zuen Enron enpresa amerikar erraldoiaren porrota, non zeresan handia izan zuen Arthur Andersen Ikuskaritza sozietateak egindako lanak. Izan ere, salbuespenik gabeko ikuskaritza txostena jaulki eta gutxira Enronen porrotak jarraitu zion, eta honekin batera, gertaturikoa azaltzeko funtsezkoa suerta litzatekeen dokumentazio eta informazio askoren suntsiketa (Malles, E. 2002).

Kontuen ikuskaritza, berez, egunero garatzen eta eguneratzen doan arren, Enron bezalako gertaerek eragiten duten konfiantza mailaren beherakadari eta kontuen ikuskaritzaren irudiak izandako kalteari aurre egiteko, kontuen ikuskaritza arautzen duten legeetan aldaketa ugari izan eta egongo dira.

Aldaketa hauen artean, azpimarragarriena Kontuen Ikuskaritzarako Nazioarteko Arau (NIA) berrien agerpena izan da, azken 20 urteetan kontuen ikuskaritzan izan den arautegi aldaketa garrantzitsua. Honen bidez, Europar Batasuneko herrialde desberdinetan burutzen diren kontuen ikuskaritza lanen arteko alderagarritasuna handitu eta arriskuen ezagupen maila altuagoa lortu nahi da (Alonso, M. 2014). Arautegi berri honekin, kontuen ikuskaritza egiteko Europar Batasuneko herrialde guztiek arautegi berdina aplikatuko dute.

Bestetik, nazio mailan ematen ari diren aldaketen artean, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2014ko urriak 27ko Ebazpena gailentzen da guztien artetik. Ebazpen honen bidez, Kontuen Ikuskaritza Legearen Aurreproiektua audientzia publikoan jarri da, gerora gaur egun indarrean dagoen legea ordezkatzeko duena. Honen helburua, kontuen ikuskaritza lanen kalitatea handitzea da, informazio ekonomiko finantzarioarekiko dagoen konfiantza altuagoa izateko asmoz (MEC, 2014). Lege berri honekin, espainiar legeria Europar Batasuneko Parlamentuak eta Kontseiluak onarturiko Urteko Kontuen eta Bateratuen Legezko Kontuen Ikuskaritzari buruzko 2014/56 UE Direktibara eta Interes Publikodun Entitateei aplikatu beharreko eskakizun espezifikoei buruzko 537/2014 Araudira egokituko da. Bi arau hauek 2016. urteko ekainaren aurretik indarrean sartuko dira.

Lan honen helburua, kontuen ikuskaritza lana, araudi berria jarraituz, nola burutzen den aurkeztea da, agindu gutunetik hasita ikuskaritza txostena igorri arte, kasu praktiko baten bidez.

3. LANAREN HELBURUA

Helburu nagusia Guremugikor S.L. sozietatearen 2014 ekitaldiko urteko kontuen ikuskaritza egitea da, hau da, enpresaren urteko kontuek 2014 ekitaldiko ondarearen, emaitzen, egoera finantzarioaren eta diru-fluxuen irudi fidela aurkezten duten frogatzea.

Hala ere, aurretik aipatu dugunez, ez dira gutxi alor honetan azken denboraldian eman diren aldaketak. Horren ondorioz, lan egiteko modua asko aldatu da, auditoreak aldaketa hauetara moldatzera behartuz. Horregatik, beste helburuetako bat kontuen ikuskaritza prozesu oso bat, indarrean dauden arau berriei jarraiki egitea da.

Bi helburu hauetaz gain, lan honen atzean badago niretzako balio handia duen beste bat. Zoritxarrez, euskararen presentzia alor honetan oso murriztua da eta oso zaila edo batzuetan ezinezkoa da honi buruzko informazioa euskaraz lortzea. Euskal Instituzioen aldetik euskara alor honetara zabaldu ahal izateko azkenaldian ahaleginak egin diren arren, aurrerapenak eskasak izan dira. Oraindik oso kopuru txikia izaten jarraitzen dute euskaraz irakurri ditzakegun kontuen ikuskaritza txostenak. Hori dela eta, kontuen ikuskaritza bat euskaraz hasieratik bukaerara arte egitea posible dela erakusteko aukera ere ikusten dut lan honetan.

4. METODOLOGIA

Gratu Amaierako Lan honekin, amaierara heltzen den gradu honen azken urtean, Erasmus programaren bitartez, Danimarkan bost hilabetez ikasteko aukera izan dut, bertako kultura eta ohiturak ezagutu eta etorkizunerako oso baliagarria izango zaidan esperientzia bereganatzeko. Bertako irakaskuntzari dagokionez, ez dira gutxi izan niregan interesa piztu duten danimarkar hezkuntzaren berezitasun edota irakasteko formak, baina hasieratik harritu nauen zerbait

azpimarratu beharko banu, ikasteko metodologiari ematen dioten garrantzia bereiztuko nuke nik. Horren isla izan da, esate baterako, unibertsitatera heldu bezain pronto, ikasleek duten irakasgaietako bat “Scientific Methodology and philosophy of science” delakoa, hau da, metodo zientifikoak eta zientziaren filosofia.

Bost hilabete iraun duen atzerriko nire lehen esperientzia honetan, beste lau irakasgairekin batera, aipatu berri dudan metodologiarekin loturiko irakasgai interesgarri hau ikasteko zortea izan dut. Honen arabera, ikerkuntza zientifikoak bi metodologia ezberdinetatik abiatuz burutu daitezke: kuantitatiboa edo kualitatiboa.

Metodologia kuantitatiboa, jadanik existitzen diren teorien kontrastean oinarritzen da eta horretarako beharrezkoa da hipotesi batzuetatik abiatuta, populazio baten ordezkaria izango den lagin bat eskuratzea, induktibismoa alegia. Honen isla dugu adibidez, Auguste Comte filosofo frantziarraren pentsamoldetik jaio zen positibismoaren diziplina (FIMA, 2014-2015 ; Carazo, P. 2006).

Metodologia kualitatiboa, ordea, behaketa desberdinak eginez teoria bat berrestean datza, hau da, deduktibismoa. Honen aplikazioa ikus dezakegu Karl Popper filosofo austriarrak sorturiko Razionalismo Kritikoaren diziplinan.

Hala ere, bi metodologia desberdin hauek bi galdera desberdinei erantzuna bilatzen saiatzen direla esan dezakegu. Metodologia kuantitatiboak, “Zer?” galderari erantzun nahi dion bitartean, metodologia kualitatiboak “Nola?” galderari erantzuna eman nahi dio (FIMA, 2014-2015; Carazo, P. 2006).

Gratu Amaierako Lan honi dagokionez, kontuen ikuskaritza bat izanik, bai metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa uztartzen ditu. Alde batetik, metodologia kuantitatiboa aplikatu egiten da, esate baterako, Galdu Irabazien Kontuko kanpo zerbitzuen barruan hornidura gastuak aztertzen ari garenean, laginketa baten bidez aukeratu ditugun faktura batzuk ondo kontabilizatuta daudela ziurtaturik, horniduren zenbateko osoa ondo kontabilizatuta dagoela ondorioztatzen dugunean. Hau da, populazio osora orokortu egiten dugunean lagin batetik lorturiko emaitza.

Bestalde, NIA-ES 200 Arauak dioten moduan, auditorearen zuhurtzia eta esperientzia kontu ikuskaritzaren prozesuan funtsezkoa da, adibidez, urteko kontuen arlo bakoitzak errepresentatzen duen arriskua identifikatzeko edota sozietateak daukan barne kontrola egokia den ondorioztatzeko orduan. Honek lotura zuzena du, metodologia kualitatiboarekin. Izan ere, metodologia kuantitatiboa erabili ahal izateko aproposak izango diren laginak aukeratzeko metodologia kualitatiboa erabiltzea beharrezkoa da (Carazo, P. 2006). Alegia, aurreko adibideari jarraiki, ikuskariak horniduren gastua ondo kontabilizatuta dagoela ondorioztatzeko, lehenik eta behin bere esperientzia eta zuhurtziaz baliatuz, arlo horrek zer nolako arriskua duen identifikatu beharko du eta enpresak aplikatzen duen barne kontrola arlo honetan fidagarria den, eta honen ondoren, urte osoko hornidura gastu hau osatzen duten

fakturen artean laginketa bat egiteko, bere aburuz garrantzitsuenak diren fakturak hautatuko ditu.

5. IKUSKARITZA LANAREN ENKARGUA

5.1 IKUSKARITZA LANAREN ESKAERA

Jakin badakigunez, kontuen ikuskaritza sozietateek eskatzen edo kontratatzen duten zerbitzu bat da, bai bolondres bai derrigortuta. Izan ere, zenbait kasutan edo baldintzapean, sozietateak beharturik daude kontuen ikuskaritza bat egitera:

- a) Sozietatearen tamainagatik kontuen ikuskaritza egitera beharturik dauden sozietateak. Honen arabera, uztailaren 2ko 1/2010 Errege Dekretuaren bidez onarturiko Kapital Sozietateen Legearen testuko 257 artikuluan zein Ekintzaileak eta haien nazioartekotzea babesteko, irailaren 27ko, 14/2013 Legearen 49 artikuluan ezarritako hiru baldintzetatik bi betetzen badira bi urtetan jarraian, sozietatea kontuen ikuskaritza egitera beharturik egongo da: Aktiboa 2.850.000 euro baino handiagoa izatea, Negozio Zifraren Zenbateko Garbia 5.700.000 euro baino handiagoa izatea eta ekitaldiko batez besteko langileen zenbatekoa 50 baino handiagoa izatea.
- b) Tamainarekin loturik ez dauden arrazoiengatik kontuen ikuskaritza egitera beharturik dauden sozietateak. Hauen artean hurrengoak bereiz ditzakegu: burtsan kotizatzen dutenak, sarritan finantza bitartekari moduan aritzen direnak, Administrazio Publikotik 600.000 eurotik gorako diru laguntzak jasotzen dituzten sozietateak eta abar.

Guremugikor S.L. sozietatea, 2014. urtean kontuen ikuskaritza egitera beharturik dago bere tamainagatik. Sozietatea 2013. urtean sortu zen, eta lehenengo urte honetan hiru baldintzetatik bi betetzen zituen: Aktiboa 8.756.960 eurokoa, 2.850.000 euro baino handiagoa izan zen, eta Negozio Zifraren Zenbateko Garbia 6.535.452 eurokoa, 5.700.000 euro baino handiagoa izan zen. Batez besteko langileen zenbatekoa ordea, 2013 ekitaldian 8 langilekoa izan zen, 50eko kopuruaren azpitik. Hala ere, aurreko paragrafoan azaldu dugunez, nahikoa da ikuskaritza derrigorrean egiteko hiru baldintza hauetatik bi betetzea bi urtetan jarraian. Lehenengo urtea, gainera, salbuespen urtea izanda, hiru baldintzetatik bi betetzean kontuen ikuskaritza egitera beharturik zegoen.

2014. urteari dagokionez, aurreko baldintza guztiak gainditzen ditu. Aktiboa 18.605.018 eurokoa da, Negozio Zifraren Zenbateko Garbia 46.324.760 eurokoa da eta batez besteko langile kopurua 53 langilekoa da.

Hortaz, 2014. urtean Guremugiko S.L. sozietatea Kontuen Ikuskaritza bat egitera beharturik dagoela ziurta dezakegu bere tamaina dela eta.

5.2 AURRETIAZKO BERRIKUSKETA

2013. urtean Guremugikor S.L. sozietatearen urteko kontuak ikuskatu genituen lehenengo aldiz. Hortaz, 2014. urtea Guremugikor S.L. sozietatearen urteko kontuak ikuskatzen ditugun bigarren urtea denez, aurtengoa kontu ikuskaritza errepikaria da. Bigarren urtea izan arren, aurretiazko berrikusketa egin dugu, izan ere, NIA-ES 210 Arauaren arabera, zenbait faktore bete behar direlako ikuskatze lanarekin jarraitu ahal izateko. Faktore hauek betetzen diren ziurtatzeko enpresara bertaratu gara eta ondorengo informazioa lortu dugu:

1. Sozietatearen zuzendaritzak finantza informazioaren arautegi egokia erabiltzen du urteko kontuak prestatzeko eta kontuen ikuskaritzaren irizpide eta helburuak zeintzuk diren ezagutzen ditu.

Lortutako informazioaren arabera sozietateak jarraitzen dituen kontabilitate printzipio eta arauak oro har onartutakoak dira: Merkataritzako Kodea eta merkataritzako gainerako legeria, KPO, ICAC-ek kontabilitate-gaiak garatzeko ezartzen dituen arauak eta espezifikoki aplikatzeko den gainerako espainiar legeria.

2. Sozietatearen zuzendaritzak urteko kontuen prestakuntzan eta barne kontrolean daukan erantzukizuna ezagutu eta onartzen ditu, eta honekin batera, auditoreak nabaritasuna lortzeko behar duen informazio eta pertsonak eskuragarri jartzen ditu.
3. Ikuskaritza lanaren terminoei buruz ados jarri gara auditorea eta sozietatearen zuzendaritza.

Ikuskaritza lana onartzeko azken baldintza aztertu behar dugu: etikaren eta independentziaren arautegia. Ildo honetan, egiaztatu egin dugu etika arauak eskatzen dituen baldintza eta eskakizun guztiak betetzen ditugula.

Beraz, NIA-ES 210 Arauak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditugu, bai ikuskatuko den sozietateak zein auditoreok, eta ondorioz, lana kontratatzeke agindu edo enkargu gutuna prestatu dugu. Idatzizko agiri honetan, auditore eta ikuskatuko den sozietatearen arteko akordioa zehaztu dugu, argi utziz zeintzuk diren ikuskaritzaren helburu eta eremua.

5.3 AGINDU GUTUNA

Agindu gutunaren helburua, kontuen ikuskaritza indarrean dagoen arautegiaren arabera burutzean kontuan hartu behar diren baldintzak idatziz ezartzea da. NIA-ES 210 Arauak, agindu gutunak bete beharreko hurrengo arloak finkatzen ditu:

- a) Egoera finantzarioen ikuskaritzaren helburuak eta eremua.
- b) Auditorearen erantzukizunak.
- c) Administratzaile eta zuzendarien erantzukizunak.
- d) Egoera finantzarioak prestatzeko orduan aplikagarria den informazio finantzarioaren arautegia.

e) Igorriko den txostenaren egitura eta edukiari erreferentzia.

Era berean, kontuen ikuskaritza Legearen Araudiko 8. artikulua eskatzen duen moduan, agindu gutunean ikuskaritza txostena emateko epea eta ordainsariak adierazi ditugu beste batzuen artean, eta derrigortuta geratzen gara ikuskaritza lanaren garapenean edo ikuskaritza txostenaren banaketan edo erabileran mugak ezartzera.

Ikuskaritza errepikari baten aurrean gaudenez, 2013 ekitaldiko agindu gutunean sinatutako akordioaren arabera, kontuen ikuskaritza 2013-2018 urteen tarteko ekitaldietarako kontratatua izan zen. Hala ere, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi diren enkarguetarako ICAC-ek egokituriko Kontuen Ikuskaritzarako Nazioarteko Arauak (NIA-ES) indarrean sartu direnez, agindu gutun berri bat prestatzea erabaki genuen, NIA-ES 210 Arauak ezartzen dituen baldintzak beteko zituena eta 2014-2018 urte tarteko ekitaldietarako balioko zuena (Ikusi 2 Eranskina). Horrela, agindu gutun berri honek, 2013. urtean prestatu genuen agindu gutuna ordezkatzen du.

6. IKUSKARITZAREN PLANGINTZA

NIA-ES 300 Arauak, urteko kontuen ikuskapen prozesuaren plangintza burutzeko beharra ezartzen du ikuskaritza errepikarien kasuan. Era honetan, NIA-ES 315, 320 eta 330 Arauek ezartzen dituzten pausuak jarraituko ditugu plangintza burutzeko.

6.1 ERAKUNDEAREN ETA SEKTOREAREN BEREZITASUNEN EZAGUPENA

NIA-ES 315 Arauaren arabera, ikuskariak hurrengo arloei buruzko informazioa eskuratuko du: sozietateak jarduten duen sektorearen eta hau erregulatzen duen arautegiaren nondik norakoak, sozietatearen jatorria, sozietateak aukeratu eta aplikatzen dituen kontabilitate politikak, sozietateak aurrera daraman negozioaren arriskuak, helburuak eta estrategia eta sozietatearen bilakaera finantzarioa.


Ezagupen hau lortu ahal izateko, gure bezeroan eta bere Urteko Kontuetan eragina izan ditzaketen faktoreak bi taldetan banatuko ditugu. Alde batetik barne faktoreak eta beste alde batetik kanpo faktoreak.

6.1.1 BARNE FAKTOREAK

- ✓ *Kapitalaren egitura.* Sozietatea 2013ko uztailaren 20an sortu zen. Urte bereko irailaren 8an kapital zabalkuntza bat burutu zuen, 200.000 euroko zenbatekoagatik, 20.000 partaidetza jaulkiz 10 euroko balio nominalean. Partaidetza guztiak harpidetuak eta ordainduak izan ziren bere bazkide nagusiengatik.

- ✓ *Jabetzaren egitura.* Sozietatea Ourmobiles izeneko enpresa talde txinatar baten barruan kokaturik dago. Enpresa talde hau, komunikazio mugikorren produktu eta zerbitzuen hornitzailea da, I+G arloetan espezializatzen delarik.
- ✓ *Negozioaren helburua.* Enpresaren xedea estatutuetan definiturik dago: komunikazio terminalen salerosketa, inportazioa eta esportazioa.
- ✓ *Pertsonala.* 2013. urte bukaeran, sozietatea 8 langilez osaturik zegoen eta 2014. urte bukaeran 53 langilez. Langileen ordainsariei dagokienez, 14 ordainketetan banaturik dago eta aparteko ordainketak uztailean eta abenduan jasotzen dituzte. Gaur egun, langileek duten hitzarmen kolektiboa Bizkaiko Burdinaren merkataritza sektoreari aplikagarria zaion hitzarmen kolektiboa da.
- ✓ *Kontabilitate politika edo prozeduren hautaketa eta aplikazioa.* Sozietateak indarrean dagoen KPO aplikatzen du.
- ✓ *Antolakuntza egitura.* Hurrengo irudian antolakuntzaren egitura aurkezten da:

Irudia 1: Guremugikor S.L.ren antolakuntza egitura.



Iturria: Norberak egina

6.1.2 KANPO FAKTOREAK

- ✓ *Merkatuaren ezaugarriak.* Smartphone-en merkatua gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. Merkatua oso dinamikoa da, etengabe aldaketak jasaten dituena. Era honetan, Espainia smartphone-en barneratze maila handienenetarikoa duen herrialde europarra bihurtu da %62ko batez besteko barneratze mailarekin 2012an, European %54a izanik (Europapress, 2012).

- ✓ *Etorkizun oparoa.* Datuek etorkizun oparoa aurreikusten dute merkatu honentzat, are gehiago kontuan harturik merkatua oraindik hazkunde fasean aurkitzen dela, izan ere, ugariak dira arlo honetan gauzaten ari diren aurrerapenak.
- ✓ *Lehiakortasuna.* Guremugikor S.L. batez ere ondorengo hiru aspektuen bidez desberdintzen da lehiakideekiko:
 - Erabiltzen duten sistema operatiboa.
Sozietateak salerosten dituen mugikorren sistema operatiboa “Android” da. Sistema operatibo honek, merkatuko barneratze maila altuena du. Hori dela eta, mugikorren marka askok sistema operatibo berdina erabiltzen dute. Marka hauen artean ondorengoak bereiz ditzakegu: Samsung, LG, Nexus, HTC, Sony, BQ, Huawei, Nokia, Xiaomi, Umi eta Oppo.
 - Eskaintzen duen prezioa.
Gaur egun smartphonen prezioak nahiko altuak dira. Sozietateak, ordea, prezio nahiko merkeak eskaintzen ditu lehiakideekin konparatuta. Ondorioz, prezioa sozietatearen elementu bereizgarria da lehiakideekiko.
 - Salmenta-bideak.
Sozietateak bere mugikorrak nagusiki azalera handiko dendetan banatzen ditu, hala nola, Fnac, The Phone House eta Eroski. Hala ere, tamaina txikiagoko zeinbait dendatan ere aurki ditzakegu.

6.2 EBALUAKETA ANALITIKOA

NIA-ES 315 Arauak ezartzen duen moduan, sozietateari buruz dugun ezagupen maila handitzeko, beharrezkoa da ebaluaketa analitiko bat burutzea, bilakaera finantzarioa nolakoa izan den ulertu ahal izateko. Horretarako, sozietatearen egoera finantzarioaren ikuspegi onena eskaini dezaketen ratioak kalkulatu ditugu. Gainera, sektoreko liderra den Samsung enpresaren espainiako filialaren ratioekin konparatu ditugu.

6.2.1 EPE LABURREKO EGOERA FINANTZARIOAREN ANALISIA

Taula 1: Guremugikor S.L.ren epe laburreko egoera finantzarioaren analisia (2014/2013)

Ratioa	2014	2013	Aldakuntza	Balio egokiak	Samsung
E/lab kaudimena= Aktibo Korrontea/Pasibo Korrontea	%114,53	%106,36	%7,68	%150-200	%164
Likidezia=(Aktibo Korrontea-Izakinak)/Pasibo Korrontea	%86,38	%70,85	%21,92	%80-100	%142
Erabilgarritasuna=Diruzaintza/Pasibo Korrontea	%25,90	%6,26	%313,87	%10	%1,10

Iturria: Norberak egina, Kontabilitate Analisia eta Análisis Contable Superior irakasgaietako ikas materiala erabiliz, EAZG 2013-2014 ikasturtea, Finantza Ekonomia I Saila, EHU/UPV, eta SABI datu basetik eskuratutako Samsung Electronics Iberia S.A. enpresaren 2013ko urteko kontuak.

- ✓ *Epe laburreko kaudimena.* Epe laburrean sozietatea kaudimenduna da, izan ere, epe laburreko kaudimen ratioa %100tik gora kokatzen da, hau da, aktibo korrontea pasibo

korrontea baino handiagoa da, eta ondorioz, errotazio fondoa positiboa da. Honek esan nahi du sozietatea bere epe laburreko baliabideekin epe laburreko betebeharrei aurre egiteko gai dela. Gainera, azken urte honetan kaudimen maila altuagoa lortu du, ratioa %106tik %114ra igo baita. Hala ere, balio hauek oraindik balio egokien azpitik aurkitzen dira. Are gehiago, errotazio fondoa biltegian dauden izakinen zenbatekoaren azpitik dago ($EF^5=2.344.426<4.542.035=Izakinak$) eta komenigarria litzateke egoera hau aldatzea izakinak likido bihurtzea zaila izan daitekeelako.

- ✓ *Likidezia.* Sozietateak likidezia maila egokia duela esan dezakegu. Likidezia ratioaren kalkulurako ez ditugu izakinak kontuan hartzen epe laburreko baliabideen artean, aurretik aipatu dugunez, batzuetan epe laburrean izakinak likido bihurtzea zaila izan daitekeelako. Hala ere, nahiz eta izakinak ez ditugun gure kalkuluaren barne sartzen, sozietateak likidezia maila ona aurkezten jarraitzen du eta sozietateak ez dauka izakinekiko menpekotasunik.
- ✓ *Erabilgarritasuna.* Erabilgarritasun maila asko hazi da azken urtean, %6tik %26ra. Alde batetik, positibotzat har dezakegu ratio hau, sozietateak baliabide likido ugari dituelako epe laburreko betebeharrei aurre egiteko. Beste alde batetik, ordea, erabilgarritasun maila hain altua izateak errentagarritasun handiagoa lortzeko aukera galtzea suposa dezake.
- ✓ *Samsung-ekiko konparaketa.* Sektoreko liderraren ratioek aurreko paragrafoetan aipaturikoa berresten dute, hain zuzen, sozietateak epe laburreko kaudimen ratio ahula duela eta bere likidezia maila hobetu behar duela. Are gehiago, erabilgarritasun maila altuegia du.

6.2.2 EPE LUZEKO EGOERA FINANTZARIOAREN ANALISIA

Taula 2: Guremugikor S.L.ren epe luzeko egoera finantzarioaren analisia (2014/2013)

Ratioa	2014	2013	Aldakuntza	Balio egokiak	Samsung
Kaudimena=Aktiboa/Pasiboa	%112,56	%107,46	%4,74	%200	%164,66
Zorpetzea=Pasiboa/Baliabide Propioak	%796,50	%1340,54	%-40,58	-	%154,65
Autonomia finantzarioa= Baliabide Propioak/Aktiboa	%11,15	%6,94	%60,69	-	%39,27

Iturria: Elaborazio propioa Kontabilitate Analisia eta Análisis Contable Superior irakasgaietako ikas materiala erabiliz, EAZG 2013-2014 ikasturtea, Finantza Ekonomia I Saila, EHU/UPV, eta SABI datu basetik eskuratutako Samsung Electronics Iberia S.A. enpresaren 2013ko urteko kontuak.

- ✓ *Kaudimena.* Sozietateak kaudimen eskasa du epe luzean, izan ere, kaudimen maila onargarria izateko aktiboa pasiboaren bikoitza izan beharko litzateke, eta kasu honetan %112a besterik ez da. Egoera hau, ordea, ulergarria da, kontuan hartzen badugu enpresa sortu berria dela eta hasierako urteetan finantzaketa behar handia izatea arrunta delako.
- ✓ *Zorpetzea.* Zorpetze maila oso altua da, azken urte honetan egoera aldatu den arren. Ikus dezakegunez, sozietatearen pasiboa baliabide propioak baino zortzi bider handiagoa da, hau da, sozietatea kanpo baliabideekin finantzatzen ari da honek dakarren arriskuarekin.

⁵ EF: Errotazio Fondoa.

Hala ere, puntu honetan zehazpen txiki bat egin behar da: enpresaren pasiboa nola osatuta dagoen aztertzen badugu, pasiboaren %48a taldeko hornitzaileak direla egiaztatu dezakegu (Ikusi Balantze birsailkatua 3. Eranskinean) eta finantzaketa modu honek ez du kostu finantzariorik.

- ✓ *Finantza Autonomia.* Finantza autonomiari dagokionez, zorpetze ratioarekin bezala, sozietateak ez daukala autonomiarik esango genuke, oso zorpetuta dagoenez hartzekodunak bere kudeaketa politiketan eragiteko gai direlako. Baina sozietatearen finantzazioa taldeko enpresetan oinarritzen da, arrisku finantzariorik suposatzen ez duena. Ondorioz, sozietateak autonomia finantzarioa du, taldeko enpresek ez dutelako sozietatearen kudeaketa politiketan eragingo, eta gainera, prest daudelako sozietateari finantzazio gehiago emateko behar izatekotan.
- ✓ *Samsung-ekiko konparaketa.* Sozietatearen kaudimen ratioa baxua da eta zorpetze ratioa ere altuegia da, nahiz eta aurretik aipatu dugun moduan sozietatearen zorraren gehiengoa taldeko enpresei dagokien.

6.2.3 ERRENTAGARRITASUN EKONOMIKOAREN ANALISIA

Taula 3: Guremugikor S.L.ren errentagarritasun ekonomikoaren analisia (2014/2013)

Ratioa	2014	2013	Aldakuntza	Samsung
Errentagarritasun ekonomikoa=EE⁶/Aktiboa	%7,89	%4,66	%69,33	%7,31
Marjina=EE/Salmentak	%3,17	%6,24	%-49,25	%2,10
Errotazioa=Salmentak/Aktiboa	2,49	0,75	%233,63	0,28

Iturria: Elaborazio propioa Kontabilitate Analisia eta Análisis Contable Superior irakasgaietako ikas materiala erabiliz, EAZG 2013-2014 ikasturtea, Finantza Ekonomia I Saila, EHU/UPV, eta SABI datu basetik eskuratutako Samsung Electronics Iberia S.A. enpresaren 2013ko urteko kontuak.

- ✓ *Errentagarritasun Ekonomikoa.* Sozietatearen errentagarritasun ekonomikoa nahiko altua da eta azken urte honetan %5etik %8ra hazi da. Honek adieratzen du sozietatea errendimendu nahiko altua lortzen ari dela dituen aktiboetatik. Bilakaera positibo honen arrazoiak ulertzeko marjin eta errotazio ratioetan jarri behar dugu gure arreta.
- ✓ *Marjina.* Marjinak zeinu positiboa du, hau da, ekitaldiko emaitza positiboa izan da. Sozietateak aplikatzen duen marjina era nabarmenean murriztu da azkenengo urtean, %6tik %3ra. Honek esan nahi du sozietateak saltzen duen euro bakoitzeko lortzen duen etekina gero eta txikiagoa dela. Hala ere, hau sozietatearen salmenta politikarekin bat dator, izan ere, erakundearen eta sektorearen berezitasunen azterketan ikusi dugunez (Ikusi 6.1 atala), sozietateak bere lehiakideekiko bereizteko duen tresnetako bat prezio merkeagoak eskaintzea da.
- ✓ *Errotazioa.* Errotazioa berriz, 0,75tik 2,49ra hazi da. Hortaz, sozietateak gero eta erraztasun handiagoa du bere produktuak saltzeko.

⁶ EE: Ekitaldiko Emaitza.

- ✓ *Samsung-ekiko konparaketa.* Errentagarritasun ekonomiko nahiko ona duela esan dezakegu sektoreko liderraren balioen gainetik kokatzen delako. Hala ere, errentagarritasun ekonomikoa hobetzeko, marjina txikitu beharko luke eskaintzen dituen prezioetan lehiakorragoa izateko eta errotazioa handitzeko.

6.2.4 ERRENTAGARRITASUN FINANTZARIOAREN ANALISIA

Taula 4: Guremugikor S.L.ren errentagarritasun finantzarioaren analisia (2014/2013)

Ratioa	2014	2013	Aldakuntza	Samsung
Baliabide Propioen errentagarritasuna (r1) =EE/Baliabide Propioak	%70,71	%67,10	%5,38	%18,61
Errentagarritasun finantzario osoa (r2) =EE+GF ⁷ (1-t ⁸)/Baliabide Propioak+PG ⁹	%32,63	%43,50	%-24,99	%19
Kanpo baliabideen errentagarritasuna (r3) =GF(1-t)/PG	%4,57	%0,84	%445,58	%363,90
Zorpetzea=PG/Baliabide Propioak	%136	%55,32	%145,34	%0,11
“Leverage¹⁰” ratioa: r1=r2+(r2-r3)*Zorpetzea				

Iturria: Elaborazio propioa Kontabilitate Analisia eta Análisis Contable Superior irakasgaietako ikas materiala erabiliz, EAZG 2013-2014 ikasturtea, Finantza Ekonomia I Saila, EHU/UPV, eta SABI datu basetik eskuratutako Samsung Electronics Iberia S.A. enpresaren 2013ko urteko kontuak.

- ✓ *Errentagarritasun finantzarioa.* Sozietatearen errentagarritasun finantzarioa edo baliabide propioen errentagarritasuna oso altua da, hau da, sozietatearen akziodunek inbertituriko kapitaletik lortzen duten errentagarritasuna oso altua da.
- ✓ *“Leverage” ratioa.* Azken urte honetan errentagarritasun finantzarioa %67tik %70era hazi da. Ratio honen bilakaera aztertzeko, “Leverage” formula osatzen duten hurrengo ratioak kontuan hartu behar ditugu:
 - Errentagarritasun finantzario osoa murriztu egin da %43tik %33ra, batez ere kostu finantzariodun zorrak izan duen gorakadagatik, hau %838an hazi baita (Ikusi balantze birsailkatua 3. Eranskinean).
 - Kanpo baliabideen errentagarritasunak igoera nabarmena izan du, %1etik %5ra, eta ondorioz sozietatearen interes marjina (r2-r3) ahuldu egin da.
 - Zorpetze maila asko hazi da, %55etik %136era, finantza apalankamendu positiboa (r2>r3) izateak dakarren errentagarritasun trasbasea kanpo baliabideetatik baliabide propioetara maximizatzeko aukera aprobetxatuz. Hala ere, azken erabaki honen ondorioz kaudimena galdu du, sozietateak kostu finantzariodun zor gehiago daukalako.

⁷ GF: Gastu Finantzarioak.

⁸ t: Sozietateen Gaineko Zerga Tasa.

⁹ PG: Kostu Finantzariodun Zorra.

¹⁰ Leverage: sozietate batek bere finantza konpromesuak betetzeko duen gaitasuna ebaluatzeko balio du (FIMA, 2014).

- ✓ *Samsung-ekiko konparaketa.* Sozietateak sektoreko liderrak baino errentagarritasun maila altuagoa eskaintzen die bere akziodunei. Egoera hau positiboa da, izan ere enpresa ororen helburua bere akziodunen errentagarritasuna maximizatzea da. Bestalde, egiaztatzen dugu sozietatearen zorpetze maila oso altua dela.

6.2.5 ALDAKUNTZA ESANGURATSUAK BALIO ABSOLUTU ETA ERLATIBOETAN

2014 ekitaldian zehar Guremugikor S.L.-ren Urteko Kontuak osatzen dituzten Balantze eta Galdu Irabazien Kontuan izan diren aldaketa esanguratsuen analisia burutzeko, Balantze eta Galdu Irabazien Kontua birsailkatu egin ditugu (Ikusi Balantze eta Galdu Irabazien Kontu birsailkatuak 3. Eranskinean).

Balantzean izan diren 2013-2014 urteetako aldakuntza esanguratsuak balio absolutu eta erlatiboetan hauek izan dira:

Elementua	Aldakuntza 2014-2013		Komentarioa
	Δ ABS.	Δ %	
Ibligetua	41.427	%46,31	Hazkunde honen eragile nagusia ibilgetu materiala izan da, hau % 1.299,73an hazi baita Burgosen zentru operatibo berri baten irekieragatik.
Izakinak	1.647.893	%56,94	Aipatu beharra dago 2014 eta 2013 urteak ez direla konparagarriak, sozietatea 2013. urtearen erdialdean sortu zelako. Hala ere, azken urtean izakinak hainbeste haztearen arrazoia salmenta bolumenaren hazkundera izan da. Sozietateak erosketa bolumena handitzea erabaki du, stock segurtasun handiagoa izan eta aurrerago izan dezaketen salmenta kopururaren hazkunderari errazago aurre egiteko.
Bezeroak	3.132.813	%1.064,48	Bezero nagusiak Eroski, Fnac eta The Phone House dira. Hiru bezero hauek, bezeroen zenbateko osoaren %84a estaltzen dute.
Eskudirua	3.667.160	%719,19	Sozietateak jakinarazi digute erabilgarritasun maila altua izan nahi dutela etorkizunean izan ditzaketen behar finantzarioei aurre egiteko eta babestuago egoteko. Kontu korronteak hurrengo kreditu erakundeekin kontratatutik ditu: Laboral Kutxa, Sabadell eta BBVA.
Ondare Garbia	1.467.408	%241,39	Hazkunde hau 2014 ekitaldiko emaitzari dagokio.
Kreditu erakundeekin zorrak	2.480.371	%737,58	Era nabarmenean hazi dira Laboral Kutxa eta Sabadell kreditu entitateekin kontratatutak bi maileguengatik.
Hartzekodun Komertzialak	5.967.425	%77,04	Hauen artean taldeko hornitzaileak dira garrantzi gehien dutenak. %35a hazi dira eta ekitaldi bukaeran pasibo osoaren %43a estaltzen dute. Burutzen dituen erosketa gehienak taldekoak diren hurrengo hornitzaileekin egiten ditu: Ourmobiles S.A. eta Banatu S.A.. Ourmobiles-ek terminalak eta osagarriak saltzen dizkio eta Banatu-k merkataritza, administrazio eta kudeaketa zerbitzuak ematen dizkio.

Galdu Irabazien Kontuan izan diren 2013-2014 urteetako aldakuntza esanguratsuak balio absolutu eta erlatiboetan hauek izan dira:

Elementua	Aldakuntza 2014-2013		Komentarioa
	Δ ABS	Δ %	
Salmentak	39.789.308	%608,82	Sozietateak Guremugikor markako "smartphone" direlakoak eta hauentzako osagarriak saltzen ditu eta produktuen prestazio onak direla eta, harrera oso ona izan dute merkatuan.
Hornikuntzak	32.097.082	%641,49	Erosketa guztiak taldeko enpresei egiten dizkio.
Pertsonal Gastuak	704.888	%357,19	Sozietatearentzat lan egiten duten langile kopurua asko hazi da, 8 langiletik 53 langilera heldu zen 2014an.
Amortizazio zuzkidurak	7.347	%1.639,96	Hainbat ibilgetu eskuratu dituzenez, haien artean Burgoseko zentru operatiboa, amortizazio zuzkidura ere hazi egin da ibilgetuaren zenbatekoarekin batera.
Ustiapeneko bestelako gastuak	4.343.075	%500,05	Gastu hauen barruan errentamenduak, konponketak, profesional independenteen zerbitzuak, aseguru primak, banku zerbitzuak, publizitatea, hornigaiak, bestelako zerbitzuak eta tributuoak aurki ditzakegu. Publizitate gastuak dira garrantzitsuenak, kanpo zerbitzuetako gastu osoaren %47a suposatzen baitute. Hauek ere azken urtean asko hazi dira, sozietateak merkatuetan murgiltzeko publizitate eta marketin kanpaina eta ekintza ugari burutu dituelako.

6.3 BARNE KONTROLAREN ULERMENA

NIA-ES 315 Arauak, ikuskaritzarekin loturiko arriskuen identifikazio eta balorazioa gauzatu ahal izateko, ikuskaritza prozedimendu zehatz batzuk finkatzen ditu, hala nola, ikerketak, prozedimendu analitikoak, behaketak eta inspektzioak. Era honetan, barne kontrolaren ulermenaren bidez hurrengo aspektuak egiaztatu nahi dira:

- ✓ Aktiboak behar den moduan babesturik dauden.
- ✓ Informazio finantzarioa fidagarria den.
- ✓ Sozietatearen eragiketak modu eraginkorrean gauzatzen diren.
- ✓ Sozietateak indarrean dagoen arautegia betetzen duen.

Informazio hau lortzeko galdera sorta bat prestatu dugu (Ikusi barne kontrolaren ulermenerako galdera sorta 4. Eranskinean). NIA-ES 315 Arauari jarraiki, galdera sorta honen bidez lortu dugun ezagupena barne kontrola osatzen duten bost elementuetan sailkatu dugu, ondorengo ataletan aztertuko ditugunak

6.3.1 KONTROL INGURUA

Sozietatearen zuzendaritzaren jarrera etiko eta zintzoari eta honek barne kontrola osatzen duten gainontzeko elementuetan izan dezakeen eraginari egiten dio erreferentzia. Ildo honetan, hurrengo ondorioak atera ditugu:

- ✓ Balio etikoen komunikazio eta zainketa. Gaur egun **sozietateak ez dauka Kode Etikorik** bere enplegatuen artean banatzeko.
- ✓ Zuzendaritza eta gobernu organoen filosofia eta jarduteko estiloa. Sozietateak kontabilitate politika kontserbadoreak aplikatzen ditu.
- ✓ Sozietatea ez da hurrengo hutsegiteetan erori:
 - Egoera finantzario edota datu finantzarioetan nahita egindako akatsak.
 - Kontrolen betekizun eza.
 - Adierazpen faltsu edo zehaztu gabeak.
 - Ikerketa kriminal, prozesamenduak edo delituengatik kondenak.
 - Maula, iruzur edo antzekoengatik irekitako prozesu judizialekin loturarik izatea.
 - Ikuskarien aurkako demandak edo antzeko liskarrak.
 - Ondasunez jabetzea modu desegokian.
- ✓ Sozietatearen gobernuaren erantzuleen parte hartzea.

Enpresa txiki bat denez, ez dago sistemen elaborazio edo ejekuzioan erantzukizunik daukan batzorde ez organorik. Hala ere, taldetik sozietatearen kontrol erregularra burutzen da, izan ere, hilabete bakoitzaren itxieran zenbait datu ekonomiko-finantzario bidaltzen diete taldeari:

 - Itxiera.
 - Galdu Irabazien Kontua.
 - Inbentarioaren banakatzea.
 - Hornitzaileen eta Batezbesteko Ordainketa Epearen xehetasuna.
 - Bezeroen eta Batezbesteko Kobrantza Epearen xehetasuna.
- ✓ Autoritate eta erantzukizunen esleipena.

Funtzioen segregazio argi bat dago, izan ere, enplegatu bakoitzaren funtzioak oso argi bereizturik daude eta kargu bakoitzak dagokion berrikusketa du. Ildo honetan, sozietateak hainbat departamentu ditu: erosketena, fakturazio edo eskaerena eta administrazioarena. Kontuan harturik **duela gutxi sorturiko enpresa** bat dela eta **hazkunde fase batean murgilduta** dagoela, aipaturiko departamentuak eskatzen den lan mailari erantzuteko nahikoa direla deritzogu.

6.3.2 SOZIJETATEAK ARRISKUA BALORATZEKO DUEN PROZESUA

Sozietateak ez du arriskuen maparik. Hala ere, egoera finantzarioen irudi fidelean eragina izan dezaketen errorearen existentziaz jabetzen da. Hori dela eta, egoera finantzarioen manipulazio eta iruzurrak ekiditzeko prozedimendu eta kontrolak burutzen ditu. Hauen artean hurrengoak bereiz ditzakegu:

- ✓ Funtzioen segregazio egokia dago.
- ✓ Hilabetero itxieren berrikusketak egiten dira.

- ✓ Hilabeteroko itxierak taldeari bidaltzen zaizkio.
- ✓ Izakinen xehetasuna hilabetero taldeari bidaltzen zaio.
- ✓ Hornitzaile eta bezeroen xehetasuna hilabetero taldeari bidaltzen zaio.
- ✓ Taldeak hilabetero burutzen diren hornidurak onartu behar ditu.
- ✓ Hilabetero izakinen inbentario zorrotz bat burutzen da.

6.3.3 INFORMAZIO FINANTZARIOARENTZAT GARRANTZITSUA DEN INFORMAZIO SISTEMA

Sozietatearen negozio prozesuak eta berarentzat esanguratsuak izan daitezkeen jardueren ezagupenean datza, informazioaren teknologiaren prozedurekin eta transakzioen sorrera, erregistro, prozesu eta zuzenketen gidaliburuarekin batera.

Inguru informatikoaren barruan Spyro sistema nabarmentzen dugu, izan ere, sistema honek egoera finantzarioen prestakuntzan eragin zuzena du. Sistema honek saldoei, transakzioei eta sailkapen materialei buruzko informazioa ematen du.

6.3.4 IKUSKARITZARAKO NABARMENAK DIREN KONTROL EKINTZAK

Sozietateak aplikatzen dituen prozedimenduen artean hurrengoak bereiz ditzakegu:

- ✓ *Emaitzaren berrikusketa.* 2014 ekitaldian **sozietateak ez du aurrekontuaren kalkulua egin** salmenten, langile kopuruaren, baliabideen eta orokorrean enpresa osoaren hazkundera esanguratsua izan delako. Hala ere, 2015 ekitaldirako aurrekontu bat prestatzea espero dute, 2014 ekitaldiko emaitza abiapuntu gisa harturik.
- ✓ *Funtzioen segregazioa.* Sozietateak duen funtzioen segregazioa egokia da. Esate baterako, administrazio departamentua lau pertsonen osatzen dute: ordainketen kontabilitatearen arduradun bat dago, eskaeren eta fakturazioaren bi arduradun desberdin daude eta kontabilitate eta diruzaintzaz arduratzen den pertsona bat dago.
- ✓ *Berrikusketa.* Asier Urquijo finantza zuzendaria kontabilitatearen eta itxieren berrikusketa egiteaz arduratzen da. Asierrek esperientzia handia du bai mugikorren sektorean bai gaur egun duen karguan. Hala ere, **Asierren berrikusketa lanaz arduratzen den organo edo batzorde baten beharra dago.**
- ✓ *Kontrol fisikoak.* Sozietateak hilabetero izakinen kontrola burutzen du, biltegian zenbat unitate aurkitzen diren jakiteko. Kontrol honek izakinen %100aren zenbaketan datza hileroko itxiera datan. Zenbaketa hauek burutzen diren bitartean, ez da mugimendurik egoten biltegian, eta behin zenbaketa bukatu, informazio guztia Spyro aplikazio informatikoan sartzen da.

6.3.5 KONTROLEN JARRAIPENA

Sozietateak kontrolen jarraipena ekintza jarraituen, ebaluaketa puntualen edo bien konbinaketaren bidez burutzen du. Kontrol elementu hauek hurrengoak dira:

- ✓ Kontabilitate funtzioaren berrikusketa eta kontrola. Asier Urquijo kontrol egokiak burutzen ari direla eta hauek espero zen moduan funtzionatzen ari direla ziurtatzeko arduraduna da.
- ✓ Barne bilerak eta komunikazioa zuzendaritzari, kontrolen efikaziari buruz informatzeko.
- ✓ Asier Urquijo Joseba Irazabal Zuzendari Orokorrari kontrol gabeziak aurkitu diren komunikatzeaz arduratzen da, eta dagokionean, aurkituriko arrisku berri bat murrizteko kontrol ekintza berri bat proposatzeko.

Behin sozietatearen barne kontrola osatzen duten bost elementu hauek azterturik, inguru ez fidagarri bat dela ondorioztatzen dugu: enpresa txikia, hazkunde azkarrarekin, barne ikuskaritza edo barne kontrol funtziorik gabekoa eta funtzioen segregazioarekin arazoak dituen sozietatearen tamaina dela eta.

6.4 GARRANTZI ERLATIBOA

NIA-ES 320 Arauaren arabera, auditoreak garrantzi erlatiboaren zifra finkatu behar du Egoera Orri Finantzarioentzako, lanaren gauzapenerako eta zein zenbatekotik behera errakuntzak esanguratsuak ez diren finkatzeko. Horretarako, REA-REGA korporazioak NIA-ES 320 Araua betetzeko prestatu duen gida orientagarria jarraitu dugu.

Ezarri ditugun garrantzi erlatiboaren zenbatekoak hauek dira:

- CIREF¹¹: 231.624 €
- CIRET¹²: 173.718 €
- IICI¹³: 23.162 €

¹¹ CIREF: Cifra Importancia Relativa para los Estados Financieros en su conjunto

¹² CIRET: Cifra de Importancia Relativa para la Ejecución del Trabajo

¹³ IICI: Importe de las Incorrecciones Claramente Insignificantes

Garrantzi erlatiboaren zifra Egoera Orri Finantzarioentzako (CIREF) → 231.624 euro

CIREF ezartzeak, auditoreon zentzu profesionala erabiltzea inplikatzeko du, nahiz eta askotan aukeraturiko erreferentzia bati portzentai bat aplikatzen diogun garrantzi erlatiboaren zifra ezartzeko abiapuntu gisa.

REA-REGA korporazioak NIA-ES 320 betetzeko prestatu duen gida orientagarriaren arabera, hazkunde fasean aurkitzen diren enpresen kasuan, hurrengoak hartu ahal dira erreferentzia moduan: Negozio Zifraren Zenbateko Garbia, Aktiboen Totala, Ondare Garbia edo Gastu Totalak. Gure ustez, Guremugikor S.L.ren kasuan erreferentzia hauen artean adierazgarriena Negozio Zifraren Zenbateko Garbia da, azken bi urteetan salmenta bolumen handiak izan baititu.

Aukeraturiko erreferentziari zein portzentai aplikatuko diogun erabakitzeak, REA-REGA korporazioak proposatutako gidaren arabera, portzentaiak izan dezakeen balio maximoa %26a da eta minimoa %0a. Tarte honen barnean portzentai bat aukeratzeko, gidak hurrengo aspektuak kontuan hartzen ditu: sozietatearen tamaina eta buruturiko operazioen konplexutasuna, sozietatearen ondare eta finantza egoera, sozietatearen jabetzaren egitura eta sozietateak jarduten duen merkatua eta egoera ekonomikoa. Faktore hauek kontuan hartuz, gure aburuz portzentairik aproposena %0,5a da, tamaina txikiko sozietate bat delako, bai Aktibo, Negozio Zifraren Zenbateko Garbia eta Pertsonal aldetik. Portzentai hau aplikatuz, lortzen dugun CIREF 231.624 eurokoa da (46.324.760 euroren %0,5a).

Garrantzi erlatiboaren zifra lanaren gauzapenerako (CIRET) → 173.718 euro

CIRET CIREF-en azpitik aurkitzen da, eta hau finkatuz, identifikatu eta zuzendu ez diren errore guztien batuketak CIREF gainditzearen probabilitatea murriztu nahi da.

CIRET, CIREF-i portzentai bat aplikatuz lortzen da eta portzentai hau zehazteko REA-REGA-ren gidak, hurrengo lau irizpideak kontuan hartzea gomendatzen du, irizpide bakoitzari 3 puntuko balorazio maximoa atxikitzen diolarik, ondoren, puntuazio honen arabera, portzentai ezberdinak aplikatzeko.

- 1) Sozietatearen ezagupena. Aurten burutuko dugun kontuen ikuskaritza errepikaria da, iaz Guremugikor S.L. ikuskatu genuelako. Beraz, puntu bateko balorazioa emango diogu irizpide honi.
- 2) Arriskuen balorazio prozedimenduen emaitza. Honen barnean bi faktore kontuan hartu behar ditugu. Alde batetik, Atxikituriko Arriskua, gure ustez nahiko altua dena, izan ere, sozietatea hazkunde prozesuan aurkitzen da eta Egoera Orri Finantzarioak osatzen dituzten atal guztiek aldakuntza oso esanguratsuak izan dituzte azken urtean. Beste aldetik, Kontrol Arriskua, 6.3 atalean ikusi dugunez ez dena oso fidagarria. Beraz, Atxikituriko eta Kontrol Arriskuak altuak direnez, Errore Materialen Arriskua altua dela deritzogu. Hori dela eta, bigarren irizpide honi 3 puntuko balorazioa emango diogu.
- 3) Aurreko ikuskaritzetan aurkituriko erroreen natura eta hedadura. 2013 ekitaldiko kontuen ikuskaritzan, esanguratsuak ez ziren errore ugari topatu genituen, gure iritzian eraginik izan ez zutenak. Hortaz, 2 puntuko balorazioa emango diogu hirugarren irizpide honi.
- 4) Auditorearen espektatibak errorei buruz ekitaldi honetarako. Aurreko ekitaldian bezala, esanguratsuak ez diren erroreak aurkitzea espero dugu, gure iritzian eraginik izango ez dutenak. Horregatik, 2 puntuko balorazioa emango diogu irizpide honi baita ere.

Ikus dezakegunez, lau irizpide hauek kontuan hartuz lortzen dugun balorazioa 8 puntukoa da. Ondorioz, puntuazio honen arabera eta REA-REGA-ren gidari jarraiki, CIRET lortzeko %75eko portzentaia aplikatuko diogu CIREF-i. Era honetan lortzen dugun CIRET 173.718 eurokoa da (231.624 euroren %75).

Erroreak zein zenbatekotik behera era nabarmenean esanguratsuak ez diren zehaztea (IICI) → 23.162 euro

NIA-ES 450 Arauaren arabera, auditoreak, ikuskaritza burutzen doan heinean, aurkitzen dituen erroreak gehitzen joango da, era nabarmenean esanguratsuak ez direnak izan ezik. Zenbateko hau zehazteko, CIREF-i %5 eta %20 bitarteko portzentai bat aplikatzen zaio. Tarte honen barruan zein portzentai hautatuko den erabakitzeke REA-REGAren gidak, hurrengo bost irizpideak kontuan hartzea gomendatzen du, irizpide bakoitzari 2 puntuko balorazio maximoa atxikitzen diolarik, ondoren, puntuazio honen arabera, portzentai ezberdinak aplikatzeko.

- 1) Ikuskaritza errepikaria edo lehenengo ikuskaritza den. Aurten Guremugikor S.L. bigarren aldiz ikuskatzen dugunez, ikuskaritza errepikaria da eta puntu bateko balorazioa emango diogu.
- 2) Aurreko ekitaldietako errorezen zenbatekoa. Esanguratsuak ez ziren errore ugari topatu genituen, gure iritzian eraginik izan ez zutenak. Hortaz, 2 puntuko balorazioa emango diogu.
- 3) Aurreko urtean aurkitu ziren erroreak berriro gerta ez daitezen zuzendaritzak neurri aproposak hartu dituen. 6.3 atalean ikusi dugunez, kontrol neurriak ez dira guztiz fidagarriak. Hori dela eta 2 puntuko balorazioa emango diogu.
- 4) Sozietateak ikuskaritza burutzeko orduan eskatu duen zorrozatasuna. Orokorrean, sozietatea nahiko zorrotza izan da. Horregatik, puntu bateko balorazioa emango diogu.
- 5) Kontuen ikuskaritza burutuko duen lan taldearen kualifikazio eta esperientzia. Sektore honetan 5 urte eta kontuen ikuskaritzak burutzen 10 urteko esperientzia dugunez, 0 puntuko balorazioa emango diogu.

Guztira, bost irizpide hauek kontuan hartuz, 6 puntuko balorazioa lortzen dugu. Ondorioz, puntuazio honen arabera eta REA-REGA-ren gidari jarraiki, IICI lortzeko CIREF-i aplikatuko diogun portzentaia %10a izango da. Era honetan lortzen dugun IICI 23.162 eurokoa da (231.624 euroren %10a).

6.5 IKUSKARITZA ARRISKUAREN BALORAZIOA

Behin lanaren gauzapenerako CIRET zehazturik, ikuskatuko ditugun arloak zeintzuk izango diren erabaki dugu, hain zuzen, ekitaldi itxieran lanaren gauzapenerako garrantzi erlatiboaren zifra (CIRET=173.718 euro) baino saldo handiagoa dutenak. Era honetan, aztertu egingo ditugun arloak honako hauek izango dira: Balantzeko izakinak, bezeroak, diruzaintza, ondare garbia, zor finantzarioa eta hornitzaileak, eta Galdu Irabazien Kontuko salmentak, erosketak, pertsonal gastuak eta ustiapeneko bestelako gastuak.

NIA-ES 315 Arauak, arlo hauetan burutuko ditugun ikuskaritza prozedimenduen izaera, burutzeko momentua eta hedadura zehazteko, ikuskaritza arriskuaren (RA¹⁴) balorazioa burutzea eskatzen du. Ikuskaritza arriskuaz ari garenean, ikuskariak era esanguratsuan akasduak diren Urteko Kontuei buruz aldeko iritzia igortzeko duen arriskuaz ari gara, eta hurrengo hiru arrisku motez osaturik dago (Alonso eta beste batzuk, 2014, 79-80 orriak):

¹⁴ RA: Riesgo de Auditoría

- a. Atxikituriko arriskua (RI¹⁵). Kontabilitate prozesuan zehar akats garrantzitsuak sortzeko posibilitateaz osaturik dago, sozietatearen jarduerari zuzenean atxikiturik daudenak. Akats hauek sozietatearen eragiketen konplexutasunaren, pertsonalaren trebetasun faltaren edo esperientzia ezaren ondorio dira.
- b. Barne kontrolaren arriskua (RC¹⁶). Aipaturiko akats garrantzitsuak existitzen direla kontuan harturik, sozietateak dituen barne kontrol sistemek akats hauek ez antzemateko dagoen posibilitateari egiten dio erreferentzia.
- c. Antzemateko arriskua (RD¹⁷). Existitzen diren eta barne kontrolerako sistemek antzeman ez dituzten akats garrantzitsuak, era berean ikuskaritza prozedimendu egokien aplikazioaren bidez antzemanak ez izateko dagoen posibilitateari egiten dio erreferentzia.

Laburbilduz, ikuskaritza baten arrisku orokorra (RA), barne kontrolaren sistemek ikuskatu egin diren urteko kontuetan akatsak ez antzemateko arriskuaren (RI*RC) eta antzemateko arriskuaren (RD) arabera da:

$$RA=RI*RC*RD$$

Ildo honetan, Ikuskarien Institutu Kanadiarrak hurrengo taula proposatzen du, ikuskaritza baten arrisku orokorraren kalkulurako orientazio gisa:

Taula 5: Ikuskaritzaren arrisku orokorraren kalkulurako taula orientagarria

Arriskuaren Kategoria	Atxikituriko arriskua (RI)	Baxua	Ertaina	Altua
	Barne Kontrolekoa (RC)	Ahula	Moderatua	Indartsua
	Antzemateko arriskua (RD)	Oso eraginkorra	Eraginkorra	Ez eraginkorra
Atxikitutako arriskua (RI)		%40	%50	%60✓
Barne kontroleko arriskua (RC)		%20	%50	%80✓
Antzemateko arriskua (RD)		%30✓	%50	%70

Iturria: Larriba Díaz-Zorita, A. (2009). Auditoría de cuentas anuales (1) (304-307). Madrid: Centro de Estudios Financieros (CEF).

Aurreko guztian oinarriturik, ikuskaritza arriskuaren hurrengo balorazioa egin dugu:

1. RI altua da, %60a, ondorengo faktoreek eraginda:
 - ✓ Gaur egun bizi den egoera ekonomiko zailak iruzurrak egiteko arriskua handitzen du.
 - ✓ Sozietatearen errentagarritasuna kaltetua izan daiteke, izan ere, tamaina txikiko enpresa bat da, enpresa multinazionalak nagusi diren merkatu batean.
 - ✓ Sozietateak transakzio esanguratsuak burutzen ditu taldeko enpresekin.

¹⁵ RI: Riesgo Inherente

¹⁶ RC: Riesgo de Control

¹⁷ RD: Riesgo de Detección

- ✓ Sozietatea sortu berria da eta bere langileak oraindik ez dira egokitu informazio finantzario eta kontabilitatearen arloetan erabiltzen dituzten aplikazio informatikoetara.
- 2. Lanaren plangintzan sozietatearen barne kontrola aztertu dugunean (Ikusi 6.3 atala barne kontrolaren ulermena), hau defizitarioa edo ahula dela ondorioztatu dugu. Beraz, RC altua dela deritzogu, %80a.
- 3. Sektore honetan dugun esperientzia eta sozietatearen urteko kontuak ikuskatzen ditugun bigarren urtea dela kontuan harturik, RD oso eraginkorra dela uste dugu, %30a.

RA osatzen duten hiru arrisku mota desberdinei buruz egin dugun balorazioaren arabera, sozietatearen ikuskaritza arriskuaren portzentaia % 14,40a izango da:

$$RA=RI*RC*RD=0,06*0,08*0,03=0,0144$$

Bukatzeko, NIA-ES 330 Arauak adierazitakoa jarraituz, identifikaturiko arrisku hauei aurre egiteko arlo bakoitzean aplikatu beharreko ikuskaritza prozedimenduak zehaztuko ditugu, eta horretarako, hurrengo matrizea erabiliko dugu:

Irudia 2: Arrisku eta ikuskaritza prozedimenduen matrizea

Arriskuaren balorazioa	Ikuskaritza prozedimendua
Atxikituriko arrisku altua eta barne kontroleko arrisku baxua	Kontrol prozedimenduak
Atxikituriko eta barne kontroleko arrisku altua	Xehetasunezko prozedimendu sustantiboak
Atxikituriko eta barne kontroleko arrisku baxua	Prozedimendu analitiko sustantiboak
Atxikituriko arrisku baxua eta barne kontroleko arrisku altua	Prozedimendu sustantiboak

Iturria: Norberak eginga, Arriskuaren ebaluazioan oinarritutako Egoera Orri Finantzarioen Ikuskaritza materialaren arabera. Mercado Mancinelli, C.H.J.M. (2010). Universidad Nacional de La Palma.

7. LANAREN GAUZAPENA ARLO BAKOITZEKO

NIA-ES 500 Arauak ezartzen duen moduan, lana burutzen goazen heinean lortzen dugun nabaritasuna, arrazoizko ondorioak lortzeko nahikoa eta egokia izan behar da, auditoreak bere iritzia igorri ahal izateko. Hori dela eta, auditoreak ikuskaritza prozedimenduak diseinatu eta aplikatzean, nabaritasun bezala erabiliko den informazioa adierazgarria eta fidagarria den aztertu beharko du, eta honekin batera, ezarritako helburuak lortzeko zehastasun eta xehetasun maila nahikoa duen.

Lanaren atal honetan arlo bakoitzeko nondik norakoak azalduko ditugu, lortutako nabaritasuna nahikoa eta egokia den ondorioztatuz.

7.1 IZAKINAK (5. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 23400)

Guremugikor S.L.ren jarduera mugikorren eta hauen osagarrien salerosketan oinarritzen denez, izakinak merkataritzako izakinak dira, hau da, enpresak eskuratu eta inolako eraldaketarik gabe zuzenean saltzeko dauzkan ondasunak.

Edozein enpresa komertzialaren antzera, Guremugikor S.L.rentzako ere izakinak aktiboko elementurik garrantzisuenak dira. Honen froga daukagu 2014ko abenduaren 31an izakinek aktiboaren %24,41a islatzen zutela (Ikusi balantze birsailkatua 3. Eranskinean).

Izakinaren zenbatekoa egiaztatzeko burutu beharreko ikuskaritza prozedimenduei dagokionez, NIA-ES 501 Arauari erreparatu behar diogu. Honen arabera, izakinaren zenbatekoa materiala izatekotan, auditoreak ebidentzia nahikoa eta egokia lortuko du izakinaren kontaktetan parte hartuz eta izakinaren amaierako erregistroaren gain ikuskaritza prozedimenduak aplikatuz, amaierako erregistroek kontaktaren emaitzak adierazten dituzten ondorioztatzeko (Ikusi inbentario fisikoa 5. Eranskineko 23400.3.2 lan paperean).

Izakinaren arloko ondorioa: 5. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz eta sozietateak proposaturiko doikuntzak onartu dituela kontuan harturik, izakinaren saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren araberrako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.2 BEZEROAK (6. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 23300)

Arlo honen barne, bestelako kobratzeko eskubideak ere aztertu ditugu, hala nola, ogasun publikoa.

Bezeroen arloaren plangintzan, arlo hau osatzen duten kontu desberdinak benetakoak diren ondorioztatzeko nabaritasun nahikoa eta egokia lortzeko lana antolatu behar du auditoreak (Alonso eta beste batzuk, 2014, 278. orria).

2014ko abenduaren 31an, bezeroek Guremugikor S.L.ren aktiboaren %42a islatzen dute (Ikusi balantze birsailkatua 3. Eranskinean), egoera nahiko arrunta sozietatea produktuen salerosketan jarduten dela kontuan hartzen badugu. NIA-ES 505 Araua jarraituz, bezeroen saldoa egiaztatzeko burutu dugun ikuskatze frogan kanpo baieztapena izan da, hau da, bezeroak auditoreari zuzenean emandako erantzuna lortzea.

Sozietateak duen bezero kopurua oso handia denez, ezinezkoa zaigu bezeroen saldoen %100a egiaztatzea. Hori dela eta, baieztatuko diren bezeroak aukeratzeko sozietateari bezero bakoitzak duen saldoa zein den azaltzen duen erregistroa eskatu diogu (Ikusi 6. Eranskineko 23300.3.2 lan papera). Lanaren gauzapenerako garrantzi erlatiboaren zifra erreferentzia harturik (CIRET=173.718 euro), zifra hau gainditzen duten bezeroak zirkularizatzea erabaki dugu, %84,84ko estaldura lortuz eta nahikoa iruditu zaiguna (Ikusi 6. Eranskineko 23300.3.3

lan papera). Horrela, bezero bakoitzarentzako zirkularizazio gutun bat prestatu dugu (Ikusi 6. Eranskina 23300.9 lan papera).

Taldeko bezeroei dagokienez, bezero bakoitzaren saldoa egiaztatzeko, taldeko enpresen arteko txostenaren eta sozietateak kontabilizaturiko zenbatekoen artean diferentziarik ez dagoela baieztatu dugu (Ikusi 6. Eranskinean 23300.3.6 lan papera).

Bezeroez aparte, sozietateak Ogasun Publikoarekin BEZaren aitortpenaren ondorioz duen kreditua egiaztatu dugu. Horretarako, likidazioaren 303 eredu eskatu dugu sozietateak kontabilizaturiko zenbatekoa eta likidazioa egokiak direla ziurtatzeko (Ikusi 6. Eranskinean 23300.3.11 lan papera)

Bezereoen arloko ondorioa: 6. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz eta sozietateak proposaturiko doikuntzak onartu dituela kontuan harturik, bezereen saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren araberako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.3 DIRUZAINNTZA (7. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 23100)

Diruzaintza arloa, arlo nahiko kritikoa da, izan ere, arlo honetan likidezia maila altuko elementuak kudeatzen baitira. Era honetan, arlo honen ikuskaritzako helburu nagusia, enpresak dituen aktibo likidoen artean kontu esanguratsuenen saldoak hurrengo aspektuak betetzen dituzten zehaztea da: existitzen diren, legitimoak diren, arrazoizkoak diren, enpresaren jabetzapean dauden, hauen balorazioa egokia den, KPOren arabera kontabilizaturik dauden eta ondo babesturik dauden (Alonso eta beste batzuk, 2014, 299. orria).

Guremugikor S.L.ren kasuan, diruzaintza arloa oso garrantzitsua da, ez soilik arlo honek bere izaeragatik suposatzen duen arriskuagatik, baita sozietatearen Egoera Orri Finantzarioetan kuantitatiboki duen garrantziagatik. Izan ere, 2014ko abenduaren 31an, diruzaintzaren saldoa 4.177.061 eurokoa da, aktiboaren %22,45 (Ikusi balantze birsailkatua 3. Eranskinean), zifra hau sozietateak hiru kreditu entitate desberdinetan mantentzen dituen kontu korrontez osatuta dagoelarik (ikusi 7. Eranskina 23100.3.1 lan papera).

Kontu korronte bakoitzean mantentzen duen saldoa, garrantzi erlatiboaren zifraren ginetik (CIRET=173.718 euro) aurkitzen denez, kontu korronte bakoitza bere osotasunean egiaztatzea erabaki dugu. Horretarako burutu dugun ikuskatze frogara, kanpo baieztapena izan da (NIA-ES 505 Araua).

Diruzaintzaren arloko ondorioa: 7. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz eta sozietateak proposaturiko doikuntza onartu duela kontuan harturik, diruzaintzaren saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren araberako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.4 ONDARE GARBIA (8. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 25100)

Arlo honetan kontabilitate subjektuak duen eragina oso garrantzitsua da. Guremugikor S.L., erantzukizun mugatuko sozietatea denez, Kapital Sozietatearen Legea aplikagarria zaio. Horregatik, Ondare Garbiaren arloan burutu ditugun ikuskaritza frogak lege honek ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzen oinarritu dira.

Lehenik eta behin Ondare Garbiak 2014 ekitaldian izan dituen mugimenduekin taula bat osatu dugu, nondik norakoak aztertu ahal izateko (Ikusi mugimenduaren taula 8. Eranskinean 25100.3.1 lan paperean). Honen bidez, egiaztatu egin dugu azken urtean egondako mugimendu bakarra 2013 ekitaldiko emaitzaren aplikazioa izan dela, erreserba legal eta bestelako erreserbetara zuzendu delarik. Banaketa hau egiaztatzeke asmoz, sozietateari 2014ko ekainaren 17an burutu zen Bazkideen Batzar Orokorraren akta eskatu diogu (Ikusi akta 8. Eranskinean 25100.4 lan paperean), eta egiaztatu dugu banaketa horrela adostua izan zela. Gainera, emaitzaren banaketa behar den bezala burutu dela ziurtatzeko Kapital Sozietateen Legeak 273. artikuluan Erreserba Legalaren zenbatekoaren inguruan ezartzen duen baldintza betetzen dela ere ziurtatu dugu (Ikusi 8. Eranskinean 25100.3.2 lan papera).

Bukatzeko, Kapital Sozietateen Legeak 363 eta 327 artikuluetan Ondare Garbiaren zenbatekoaren inguruan ezartzen dituen baldintzak betetzen direla egiaztatu dugu (Ikusi 8. Eranskinean 25100.3.3 lan papera).

Ondare Garbiaren arloko ondorioa: 8. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz, Ondare Garbiaren saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren araberako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.5 ZOR FINANTZARIOA (9. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 24400)

Pasibo finantzarioko instrumentuen arloan aplikatu beharreko ikuskaritza prozedimendu motak, hornitzaile eta ordaintzeko kontuen arloetan aplikatu beharreko ikuskaritza prozedimenduen berdinak dira funtsean. Hala ere, arlo honetan berrikusi eta hirugarrenekin baieztatu behar den informazioa desberdina izango da pasibo finantzarioko instrumentuen izaera dela eta (Alonso eta beste batzuk, 2014, 369. orria).

Guremugikor S.L.-k bi kreditu entitate desberdinekin kontratatu dituen bi mailegu aztertu ditugu (Ikusi sozietateak errazturiko zor finantzarioaren xehetasuna 9. Eranskinean 24400.3.1 lan paperean). 2014. urteko abenduaren 31an Egoera Orri Finantzarioetan bi mailegu hauek modu honetan sailkatuta daude: 400.000 euro epe luzean eta 2.416.657 euro epe laburrean, guztira Pasiboaren %17a islatzen dutelarik (Ikusi Balantze birsailkatua 3. Eranskinean). Maileguak era egokian kontabilizatuak izan direla ziurtatzeko burutu ditugun ikuskaritza prozedimenduak hurrengoak izan dira: kanpo baieztapena (NIA-ES 505 Araua) (Ikusi 9. Eranskinean 24400.3.2 lan papera) eta kreditu entitateekin sinaturiko kontratuen egiaztapena (Ikusi 9. Eranskinean 24400.3.3 lan papera).

Zor finantzarioaren arloaren ondorioa: 9. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz, Zor Finantzarioaren saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren araberrako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.6 HORNITZAILEAK (10. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 24200)

Hornitzaileen arloan, gainontzeko pasiboko arloen antzera, helburu nagusia pasibo material guztiak behar den bezala kontabilizaturik daudela ziurtatzea da. Auditoreak NIA-ES Arauetan ezarritako baieztapen guztien inguruan ebidentzia nahikoa eta egokia lortu behar duen arren, integritateak, hau da, balantzetik kanpo pasibo materialik ez aurkitzeak berebiziko garrantzia du, izan ere, urteko kontuen irudi fidelari modu esanguratsuan eragin diezaiokete eta gainera auditorearen erantzukizunaren ikuspuntutik arrisku handia suposatzen duelako (Alonso eta beste batzuk 2014, 358. orria).

Hori dela eta, hornitzaileen arloan aurkitzen diren arrisku hauek murrizteko asmoz burutu dugun ikuskaritza lana hurrengo izan da: sozietateari hornitzaileen epigrafea osatzen duten kontuen xehetasuna eskatu (Ikusi 10. Eranskinean 24200.3.1 lan papera) eta garrantzi erlatiboaren zifra irizpide harturik (CIRET=173.718 euro), sakonago aztertuko ditugun kontuak hautatu: taldeko hornitzaileak, zerbitzu emateagatiko hartzekodunak, formalizatu gabeko fakturak eta sozietateak Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zorrak.

- a. Taldeko hornitzaileen saldoa egiaztatzeke, Taldeko enpresen arteko saldoen txostenaren eta sozietateak kontabilizaturiko saldoen artean diferentziarik sortzen ez dela egiaztatu dugu (Ikusi 10. Eranskinean 24200.3.2 lan papera).
- b. Zerbitzu emateagatiko hartzekodunei dagokionez, hauek aurkezten duten saldoa egiaztatzeke burutu dugun ikuskaritza froga kanpo baieztapena izan da (NIA-ES 505 Araua) (Ikusi 10. Eranskinean 24200.3.3-4-5-6 lan paperak).
- c. Sozietateak formalizatu gabeko faktura moduan kontabilizaturiko saldoa egiaztatzeke, saldo hau osatzen duten fakturak zeintzuk diren galdegin diogu sozietateari eta ondoren fakturak eskatu eta aztertu (Ikusi fakturak 10. Eranskinean 24200.3.7 lan paperean).
- d. Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen zorrei dagokienez, sozietateak kontabilizaturiko zenbatekoa egiaztatzeke, sozietateen gaineko zergaren aurreikuspena egin dugu (Ikusi 10. Eranskinean 24200.3.8 lan papera), 110 Eredua eskatu dugu (Ikusi 10. Eranskinean 24200.3.9 lan papera) eta abenduko TC eredia aztertu dugu. Horrela, baieztatu egin dugu sozietateak kontabilizaturiko zenbatekoa zuzena dela eta likidazioa ondo egin dela.

Hornitzaileen arloaren ondorioa: 10. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz eta sozietateak proposaturiko doikuntzak onartu dituela kontuan harturik, hornitzaileen saldoa

2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren arabeko kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.7 SALMENTAK (11. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 26100)

Guremugikor S.L.ren kasuan, sozietate komertziala izanik, sarrera guztien artean salmentak dira sarrera iturri nagusia. 2014 ekitaldi itxieran, sozietatearen sarrerak 46 milioi eurokoak izan dira eta aurreko urtearekiko %608an hazi dira (Ikusi 3. Eranskinean galdu irabazi kontu birsailkatua).

Sozietatearen salmentek Egoera Orri Finantzarioetan aurkezten duten saldoa egokia den ondorioztatu ahal izateko, lehenik eta behin sozietateari salmenten epigrafea osatzen duten kontuen xehetasuna eskatu diogu (Ikusi xehetasuna 11. Eranskinean 26100.3.1 lan paperean).

NIA-ES 520 Araua jarraituz, salmentetan aplikaturiko lehenengo ikuskaritza prozedimendua ebaluaketa analitikoa izan da (Ikusi ebaluaketa analitikoa 11. Eranskinean 26100.3.2 lan paperean), sozietatearen salmentek azken urtean izan duten bilakaera sektoreko bilakaerarekin kongruentea den baieztatzeko.

Ondoren, sozietateak kontabilizatutako bezero nagusien fakturazio bolumena zuzena izan den ziurtatu dugu (Ikusi 11. Eranskinean 26100.3.3 lan papera) eta sozietateak taldeko sozietateei egindako salmentak taldeko enpresen arteko saldoen txostenaren bidez egiaztatu (Ikusi 11. Eranskinean 26100.3.4 lan papera).

Amaitzeko, salmentengan aplikaturiko deskontuak aztertu ditugu (Ikusi 11. Eranskinean 26100.3.5 lan papera).

Salmenten arloaren ondorioa: 11. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz, salmenten saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren arabeko kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.8 EROSKETAK (12. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 26300)

Sozietateari erosketen epigrafea osatzen duten kontuen xehetasuna eskatu diogu (Ikusi xehetasuna 12. Eranskinean 26300.3.1 lan paperean) eta lanaren gauzapenerako garrantzi erlatiboaren zifra (CIRET=173.718 euro) irizpide harturik, aztertuko ditugun kontuak zeintzuk izango diren hautatu ditugu: izakinen erosketak eta izakinen aldakuntzak.

Izakinen erosketak egiaztatzeko, bi ikuskaritza froga burutu ditugu: erosketen ebaluaketa analitikoa (NIA-ES 520 Araua) (Ikusi 12. Eranskinean 26300.3.2 lan papera) eta erosketen zenbatekoa egiaztatzea (Ikusi 12. Eranskinean 26300.3.3 lan papera).

Izakinen aldakuntza eta kontsumoari dagokionez, sozietateak kontabilizaturiko izakinen erosketekin eta izakinen zenbatekoak azken urtean izan duten mugimenduarekin bat datozen egiaztatu dugu (Ikusi 12. Eranskinean 26300.3.4 lan papera).

Erosketen arloaren ondorioa: 12. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz, erosketen saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren arabeko kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.9 PERTSONAL GASTUAK (13. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 26400)

Sozietateak erraztu digun Galdu Irabaziko A6 epigrafearen xehetasunean ikus dezakegun moduan (Ikusi xehetasuna 13. Eranskinean 26400.3.2 lan paperean), sozietateak soldata eta enpresaren kargurako gizarte segurantza du erregistraturik epigrafe honetan. Hortaz, pertsonal gastuek ekitaldi itxieran aurkezten duten saldoa egiaztatzeko burutu ditugun ikuskaritza prozedimenduak hurrengoak izan dira:

- a. Sozietateari aplikagarria zaion hitzarmen kolektiboaren azterketa (Ikusi 13. Eranskinean 26400.3.3 lan papera).
- b. Gizarte Segurantzaren TC eredu bidez Memorian aurkezten den batezbesteko langile kopurua baieztatzea (Ikusi 13. Eranskinean 26400.3.4 lan papera).
- c. Mailaz mailakako nomina froga, soldata gastuen zenbatekoa egokia den egiaztatzeko (Ikusi 13. Eranskinean 26400.3.5 lan papera).
- d. Enpresaren kargurako Gizarte Segurantzaren zenbatekoa TC eredu bidez ziurtatzea (Ikusi 13. Eranskinean 26400.3.6 lan papera).

Pertsonal Gastuen arloko ondorioa: 13. Eranskinean buruturiko lanean oinarrituz, pertsonal gastuen saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren arabeko kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.10 USTIAPENENKO BESTELAKO GASTUAK (14. Eranskinean lan paperen erreferentzia zenbakia 26500)

Arlo honen helburu nagusia, sozietateak kontabilizaturiko gastuak existitzen diren zehaztea da, hau da, gastu hauek sortu dituzten transakzioak egon direla eta sozietateari dagozkiola. Gainera, gastu hauek behar den bezala, dagokien kontabilitate ekitaldian eta dagokien zenbatekoagatik erregistratuak izan diren ere aztertu behar da; beti ere KPO-ko erregistratzeko eta balorazio araei jarraituz (Alonso eta beste batzuk, 2014, 407. orria).

2014. urteko ekitaldi itxieran Guremugikor S.L.ren ustiapeneko bestelako gastuak salmenten %11,25a suposatuta izan dute (Ikusi 3. Eranskinean Galdu Irabazien Kontu birsailkatua).

Sozietateari ustiapeneko bestelako gastua osatzen duten gastu desberdinen xehetasuna eskatu diogu, eta lanaren gauzapenerako garrantzi erlatiboaren zifraren (CIRET=173.718 euro) arabera aztertu egingo ditugun partidak hautatu ditugu (Ikusi sozietateak errazturiko xehetasuna eta partiden hautapena 14. Eranskinean 26500.3.1 lan paperean).

Hautaturiko partiden zenbatekoa egiaztatzeko burutu dugun ikuskaritza prozedimendua “vouching” prozedimendua izan da. Prozedimendu hau gastuak justifikatzen dituzten agiri originalak lortzean datza. Horrela, aztertu dugun gastuaren arabera, eskatu ditugun dokumentuak desberdinak izan dira: errentamendu gastuak egiaztatzeko sozietateak errentariarekin sinaturiko kontratua (Ikusi kontratua 14. Eranskinean 26500.4 lan paperean), aseguru primak aztertzekeko polizaren ordainagiria (Ikusi ordainagiria 14. Eranskinean 26500.7 lan paperean) eta publizitate rappel-a aztertzekeko sozietateak bezeroekin sinaturiko akordioak (Ikusi akordioak 11. Eranskinean 26100.5-6-7 lan paperetan). Bestalde, ekitaldian zehar errepikakorrak edo periodikoak ez diren gastuak egiaztatzeko (profesional independenteen zerbitzuak, administratzio zerbitzuak, marketing gastuak eta guremugikor publizitate gastuak), ekitaldian zehar sozietateak jasotako fakturen artean laginketa aleatorio bat burutu dugu, fakturak eskatu eta ondo kontabilizatu diren aztertzekeko (Ikusi fakturak 14. Eranskinean 26100.5-6-9-10 lan paperetan).

Ustiapeneko bestelako gastuen arloaren ondorioa: buruturiko lanean oinarrituz, ustiapeneko bestelako gastuen saldoa 2014.12.31an aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren araberrako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraiki erregistraturik dago.

7.11 EKITALDI-ITXIERAREN ONDORENGO GERTAERAK

Ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerak, ekitaldi-itxieraren eta urteko kontuen formulazioaren daten artean sortzen diren gertakizunak dira, bai onuragarri zein kaltegarriak izan daitezkeenak sozietatearentzat (Alonso Alarcón, 2014, 392). KPO-ko erregistratzeko eta baloratzeko 23. arauari jarraituz, ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerek, ekitaldi-itxieran existitzen ziren egoerak azaleratzen badituzte, kontuan hartu beharko dira urteko kontuak prestatzean, eta haien izaeraren arabera, urteko kontuetan doikuntza bat egitera, memorian informazioa ematera edo bietara behartu dezakete. Ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerek, ordea, ekitaldi-itxieran ez zeuden egoerak azaleratzen badituzte, ez dute doikuntzarik egitera behartuko, baina gertaera hauek garrantzitsuak badira, memorian hauei buruzko informazioa eman beharko da.

Kontuen ikuskaritzari dagokionez, NIA-ES 560 Arauak auditoreoi ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerarik sortzekotan, gertakizun hauek urteko kontuetan behar den bezala adierazi direlaren nabaritasuna lortzera derrigortzen gaitu. Helburu hau lortzeko, burutu beharreko ikuskaritza prozedimenduek hurrengo aspektuak barneratuko dituzte:

- a. Zuzendaritzak ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerak identifikatzeko dituen prozedimenduak zeintzuk diren ezagutu.

- b. Zuzendaritzaren aurrean ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerarik sortu den aztertu.
- c. Sozietatearen bazkideen, zuzendaritzaren eta erantzuleen batzarretako aktak irakurri.
- d. Ekitaldi-itxieraren ondorengo azken bitarteko egoera orri finantzarioen irakurketa.
- e. NIA-ES 580 Araua jarraituz, auditoreak idatzizko adierazpenak eskatuko ditu, zeinetan doikuntza bat burutzerara edo informazioa ematera behartzen duten ekitaldi-itxieraren ondorengo gertaerak, aplikagarria den informazio finantzarioaren esparruaren arabera erregistratuak izan direla adierazten duten sozietatearen zuzendariek.

Aipaturiko 560 NIA-ES Arauak ezarritako prozedimenduak buruturik, ez dugu Guremugikor S.L.ren 2014. urteko ekitaldiko urteko kontuetan doikuntzarik edo informazio gehigarria ematera behar dezaketen gertakizunik aurkitu. Gainera, sozietatearen zuzendariek Adierazpen Gutuna igorri digute. Bertan, urteko kontuen itxiera datatik Adierazpen Gutunaren datara arte, urteko kontuetan agertzen ez den eta beraietan eragin esanguratsua izan dezakeen gertakizunik ez dela gertatu, ezta agerian jarri ere adierazten dute. Lan honen hurrengo atalean Adierazpen Gutuna sakonago aztertuko dugu.

7.12 ADIERAZPEN GUTUNA

Adierazpen gutuna, auditoreak gai edo arlo zehatz batzuekiko baieztapenak lortu edota bestelako ikuskaritza nabaritasun bat eusteko eskatzen duen dokumentua da, ikuskaturiko sozietateak eta dagokionean sozietatearen zuzendariek izenpetzen dutena. NIA-ES 580 Arauaren arabera, adierazpen gutuna ikuskaritzarako beharrezkoa den nabaritasuna den arren, ez da nabaritasun nahikoa. Hala ere, ikuskaritza prozesuan erreferentea da, izan ere, ikuskaritza txostenean eragina izan dezaketen aspektuekiko zantzuak ematen ditu eta sozietatearen zuzendari eta erantzuleen erantzukizunean eragina du.

Aipatutakoari jarraiki, Guremugikor S.L.ren zuzendari eta erantzuleei Adierazpen gutuna eskatu zaie eta gorde egin dugu gainontzeko lan paperekin batera.

8. IKUSKARITZA TXOSTENA

NIA-ES 700 Arauaren arabera, ikuskaritza txosten batek bi iritzi mota izan ditzake: aldatu gabekoa (edo aldekoa) edo aldatua. Auditoreak aldeko iritzia igorriko du, egoera orri finantzarioak aspektu material edo esanguratsu guztietan, informazio finantzarioaren esparru aplikagarriari jarraiki prestatuak izan direla ondorioztatzen duenean. Iritzi aldatua igorriko du, ordea, NIA-ES 705 Arauari jarraiki, lorturiko ikuskaritza nabaritasunean oinarrituz, egoera orri finantzarioak akats material edo esanguratsuak dituztela ondorioztatzen duenean edo bere iritzia igortzeko ikuskaritza nabaritasun nahikoa ez duenean. Iritzi aldatua hiru motatakoa izan daiteke:

- ✓ Salbuespenduna
- ✓ Aurkakoa
- ✓ Ukatua

Buruturiko lanean oinarrituz, Guremugikor S.Lren urteko kontuak aplikagarria den finantza informaziorako araudiaren arabeko kontabilitate printzipio eta irizpidei jarraiki prestatu direla ondorioztatu dugunez, aldeko iritzia duen ikuskaritza txostena igortzea erabaki dugu. Beraz, ondoren aurkezten dugun ikuskaritza txostena prestatzeko orduan, NIA-ES 700 Araua eta honen xedapenak jarraitu ditugu.

Bestalde, azpimarratu beharra dago, gure iritzia aldatzen ez duen arren, ikuskaritza txostenean enfasisko paragrafo bat gehitzea erabaki dugula. Izan ere, NIA-ES 706 Arauak ezartzen duen moduan, egoera konkretu batzuetan auditorea egoera orri finantzarioak edo ikuskaritza ulertzeko esanguratsuak izan daitezkeen paragrafoak gehitzea kontsideratu behar du.

Guremugikor S.L.ren kasuan, enfasisko paragrafoaren bidez, azpimarratu nahi izan dugu sozietateak bera ere partaide den Ourmobiles Taldeko enpresekin eragiketa eta transakzio bolumen esanguratsuak burutzen dituela, eta sozietateak, aspektu honi buruz urteko kontuetako memoriako 12 oharrean informazioa eskaintzen duela.

URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA TXOSTEN INDEPENDENTEA

Guremugikor S.L. sozietatearen akziodunei,

Urteko Kontuei buruzko Txostena

Guremugikor S.L. sozietatearen erantsitako urteko kontuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu hauek, 2014ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak, diru-fluxuen egoera-orriak eta memoriak osatzen dituzte.

Urteko kontuei dagokionez, administratzaileen erantzukizuna

Sozietatearen administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontuak burutzea, Guremugikor S.L. sozietatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz. Horretarako, sozietateari Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioaren Legeriarekin (erantsitako memoriako 2. ataleko X.oharrean aipatzen dena), eta iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak prestatzeko egokiena den barne kontrolarekin bat etorritz prestatu behar dituzte.

Auditorearen erantzukizuna

Gure erantzukizuna, guk egindako ikuskaritzan oinarrituta, erantsitako urteko kontuei buruzko iritzia adieraztea da. Espainian indarrean dagoen kontuen ikuskaritzarako araudiarekin bat etorritz egin dugu ikuskaritza lana. Araudi honen arabera etika-eskakizunak bete eta ikuskaritza lana planifikatu eta gauzatu behar dugu, urteko kontuek hutsegite esanguratsurik ez daukatela modu arrazoigarrian ziurtatzeko helburuarekin.

Ikuskaritza batek, urteko kontuetan biltzen den informazioari eta zenbatakoei buruz ikuskaritzako ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten prozedurak aplikatzea eskatzen du. Aukeratutako prozedurak auditorearen iritzia araberakoak dira, iruzurrengatik edo errakuntzengatik urteko kontuetan hutsegite esanguratsurik egoteko arriskuaren balioztatzea barne. Arriskuaren balioztatzea egitean, sozietateak urteko kontuak presta ditzan garrantzitsua den barne kontrola kontuan izango du auditoreak. Era horretan, egoeren arabera egokiak diren ikuskaritza prozedurak diseinatu nahi dira, eta ez sozietatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia eman. Ikuskaritza batean, aplikatutako kontabilitate-irizpideen egokitasunaren eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasunaren ebaluazioak egin behar dira, baita bere osotasunean hartutako urteko kontuen aurkezpenaren ebaluazioa ere.

Lortu dugun ikuskaritzako ebidentziarekin ikuskaritza iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Iritzia

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, 2014ko abenduaren 31n Guremugikor S.L. Sozietatearen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzen eta diru-fluxuena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren legeriaren arabera, bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta -arauekin.

Enfasi paragrafoa

Aipagarria da urteko kontuetako memoriako 12 atala, zeinetan adierazten den sozietateak bere eragiketen zati esanguratsu bat, bera ere partaide den Ourmobiles Taldeko enprekin burutzen duela. Ondorioz, urteko kontu hauen analisisa aspektu hau kontuan hartuz burutu behar da. Egoera honek ez du gure iritzia aldatzen.

Legearen eta Araudiaren bestelako eskakizunei buruzko Txostena

Erantsita doan 2014ko kudeaketa txostenak, sozietatearen egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlori buruz administratzaileen ustez egokiak diren azalpenak barneratzen ditu, eta ez dago urteko kontuen barne. Aipatutako kudeaketa txostenak barneratzen duen kontabilitate informazioa, 2014 ekitaldiko urteko kontuetakoarekin bat datorrela egiaztatu dugu. Gure lana auditore bezala, kudeaketa txostenaren azterketaren egiaztapenera mugatzen da, paragrafo honetan aipatutako eremuarekin egingo dena, eta ez du sozietatearen kontabilitate erregistroetatik lortutakoarekiko ezberdina den informazioaren berrikuspenik barneratzen.

Kepa Fernandez de Antona Garmendia



2015eko martxoaren 2a. Agirre Lehendakari, 83, ROAC-en inskribatua 2924 zenbakiarekin

9. BIBLIOGRAFIA

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- ALONSO ALARCÓN, A. ETA BESTE BATZUK (2014). *Manual de auditoría (Adaptado a las NIA's)*. Madrid: Ediciones Francis Lefebvre.
- ALONSO AYALA, M. (2014). *Entrevista*. Revista Contable, 22, 25-29
- AZKUE IRIGOIEN, I. (2007). *Kontu Ikuskaritza Eskuliburua*. Donostia: Euskara Errektoreordetzaren Sare Argitalpena.
- CARAZO, P. (2006). *El método de estudio de caso: Estrategia metodológica de la investigación científica*. Pensamiento y gestión: Revista de la división de Ciencias Administrativas de la Universidad del Norte, (20), 165-193.
- FINANCIAL MANAGEMENT AND SERVICES PROGRAMME (2014). Business and finance law irakasgaiko ikas materiala. Aarhus University School of Business.
- FINANCIAL MANAGEMENT AND SERVICES PROGRAMME (2014). Scientific method and philosophy of science irakasgaiko ikas materiala. Aarhus University School of Business.
- FINANCIAL MANAGEMENT AND SERVICES PROGRAMME (2014). Business Economics irakasgaiko ikas materiala. Aarhus University School of Business.
- FINANTZA EKONOMIA I SAILA (2013-2014). Kontabilitate Analisia eta Análisis Contable Superior irakasgaietako ikas materiala. EAZG 2013-2014 ikasturtea. Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad Pública del País Vasco (EHU/UPV).
- FINANTZA EKONOMIA I SAILA (2012-2013). Goi Finantza Kontabilitatea irakasgaiko ikas materiala. EAZG 2012-2013 ikasturtea. Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad Pública del País Vasco (EHU/UPV).
- GARCÍA DELGADO, S. (2013). *Auditoría*. OCW, EHU/UPV, nº6, área Ciencias Sociales y Jurídicas.
- GARCÍA DELGADO, S.M. ETA IPIÑAZAR PETRALANDA, I. (2014). *Audidores de cuentas ante una formación más exigente y de mayor alcance*. Enpresen Zuzendaritza eta Administrazio Aldizkaria, 21, 45-63
- LARRIBA DÍAZ-ZORITA, A. (2009). *Auditoría de cuentas anuales (1)* (304-307). Madrid: Centro de Estudios Financieros (CEF).
- MALLES FERNÁNDEZ, E. (2002). *Las actuaciones de los gestores empresariales y su control*. Enpresaren Zuzendaritza eta Administrazio Aldizkaria, 10, 175-192.

REA-REGA (2015). *Guia Orientativa de importancia relativa. Aplicación práctica de las NIA-ES 320 y 450*. Documento técnico realizado por el Comité de Normas y Procedimientos del REA+REGA.

ERREFERENTZIA ELEKTRONIKOAK

EUROPAPRESS (2012). España lidera el ranking europeo de penetración y crecimiento de ‘smartphones’. 2015eko ekainaren 14an berreskuratua hemen:

<http://www.europapress.es/portaltic/sector/noticia-espana-lidera-ranking-europeo-penetracion-crecimiento-smartphones-20121217171637.html>

SEGURIDAD SOCIAL. Bases y tipos de cotización 2014. 2015eko ekainaren 20an berreskuratua hemen:

http://www.seg-social.es/Internet_1/Trabajadores/CotizacionRecaudaci10777/Basesytiposdecotiza36537/index.htm

MEC (MINISTERIO DE ECONOMÍA Y COMPETITIVIDAD) (2014). La reforma de la Ley de Auditoría refuerza la independencia, la transparencia y la supervisión. 2015eko martxoaren 8an berreskuratua hemen:

http://www.mineco.gob.es/stfls/mineco/prensa/noticias/2014/141226_np_auditoria.pdf

MERCADO MANCINELLI, C.H.J.M. (2010). Auditoría de estados contables basada en la evaluación de Riesgos (Risk based). Universidad Nacional de La Palma. La Palma. 2015eko maiatzaren 24an berreskuratua hemen:

<http://www.eco.unlpam.edu.ar/objetos/materias/contador-publico/4-ano/control-interno-y-auditoria/aportes-teoricos/Riesgo%20de%20Auditoria.pdf>

LEGERIA

DIRECTIVA 2014/56/UE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 16 de abril de 2014, por la que se modifica la Directiva 2006/43/CE relativa a la auditoría legal de las cuentas anuales y de las cuentas consolidadas.

DIRECTIVA 2006/43/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de mayo de 2006, relativa a la auditoría legal de las cuentas anuales y de las cuentas consolidadas, por la que se modifican las Directivas 78/660/CEE y 83/349/CEE del consejo y se deroga la Directiva 84/253/CEE del Consejo.

REGLAMENTO (UE) N° 537/2014 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 16 de abril de 2014, sobre los requisitos específicos para la auditoría legal de las entidades de interés público y por el que se deroga la Decisión 2005/909/CE de la Comisión.

REAL DECRETO 1/2011, de 1 de julio, por la que se aprueba el texto refundido de la Ley de Auditoría de Cuentas.

REAL DECRETO 1517/2011, de 31 de octubre, por la que se aprueba el Reglamento que desarrolla el texto refundido de la Ley de Auditoría de Cuentas.

RESOLUCIÓN de 15 de Octubre de 2013, del ICAC, por la que se publican las nuevas Normas Técnicas de Auditoría, resultado de la adaptación de las Normas Internacionales de Auditoría para su aplicación en España (NIA-ES). (BOICAC nº95/septiembre de 2013 y BOE 13 de noviembre de 2013).

REAL DECRETO de 22 de agosto de 1885 y modificaciones posteriores, por el que se publica el Código de Comercio.

REAL DECRETO 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital.

REAL DECRETO 1514/2007, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad. (BOE nº278, de 20 de noviembre).

LEY 14/2013, de 27 de septiembre, de apoyo a los emprendedores y su internacionalización. (BOE nº233 de 28 de septiembre).

1994/7 FORU-ARAUUA, azaroaroaren 9koa, Balio Erantsiaren Gaineko Zergari buruzkoa (BAO, 94.12.14eko 236zk., zuzenketak, 95.2.20eko 35.zk.)

11/2013 FORU-ARAUUA, abenduaren 5koa, Sozietateen Gaineko Zergari buruzkoa (BAO, Abenduaren 13koa)

EBAZPENA, 2007eko abuztuaren 2koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Bizkaiko Lurralde Ordezkarirena funtzioetan. Honen bidez ebatzen da Comercio del Metal de Bizkaia sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboa erregistratu eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 4800575.

10.ERANSKINAK**1. Eranskina: Urteko Kontuak****1.1) Egoera Balantzea**

AKTIBOA	2014.12.31	2013.12.31
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	130.878	89.451
I. Ibilgetu ukiezina	40.747	4.860
5. Aplikazio informatikoak	40.747	4.860
II. Ibilgetu materiala	87.637	6.261
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	87.637	6.261
III. Ondasun higiezinako inbertsioak	-	-
IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	-	-
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	2.494	3.127
5. Bestelako aktibo finantzarioak	2.494	3.127
VI. Zerga gerotuaren aktiboak	-	75.203
B. AKTIBO KORRONTEA	18.474.140	8.667.509
I. Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteak	-	-
II. Izakinak	4.542.035	2.894.142
1. Merkataritzazkoak	4.542.035	2.893.725
6. Hornitzaileei emandako aurrerakinak	-	417
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	9.735.888	5.257.710
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik	7.972.902	4.847.299
2. Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak	7.931	721
6. Administrazio Publikoekiko bestelako hartzekoak	1.755.055	409.690
IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	-	-
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	-	-
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	19.156	5.756
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	4.177.061	509.901
1. Diruzaintza	4.177.061	509.901
AKTIBOA GUZTIRA	18.605.018	8.756.960

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2014.12.31	2013.12.31
A. ONDARE GARBIA	2.075.305	607.896
A.1 Funts propioak	2.075.305	607.896
I. Kapitala	200.000	200.000
1. Kapital eskrituratua	200.000	200.000
II. Jaulkipen-prima	-	-
III. Erreserbak	407.895	-
1. Lege eta estatutu-erreserbak	40.000	-
2. Bestelako erreserbak	367.895	-
IV. (Akzio eta ondare partaidetza propioak)	-	-
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-	-
VI. Bazkideen bestelako ekarpenak	-	-
VII. Ekitaldiko emaitza	1.467.409	407.896
VIII. (Konturako dibidendua)	-	-
IX. Bestelako ondare-tresnak	-	-
A.2 Balio-aldaketen doikuntzak	-	-
I. Aktibo finantzario salgarriak	-	-
II. Estaldurako eragiketak	-	-
III. Bestelakoak	-	-
A. 3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	-	-
B. PASIBO EZ-KORRONTEA	399.998	-
I. Epe luzerako hornidurak	-	-
II. Epe luzerako zorrak	400.000	-
2. Kreditu-entitateekiko zorrak	400.000	-
III. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe luzeko zorrak	-	-
IV. Zerga geroratuaren pasiboak	(2)	-
V. Epe luzeko periodifikatzeak	-	-
C. PASIBO KORRONTEA	16.129.713	8.149.064
I. Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteekin lotutako pasiboak	-	-
II. Epe laburreko hornidurak	-	67.146
III. Epe laburreko zorrak	2.416.657	336.286
2. Kreditu-entitateekiko zorrak	2.416.657	336.286
IV. Taldeko enpresekiko eta elkartuekiko epe laburreko zorrak	-	-
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	13.713.056	7.745.632
1. Hornitzaileak	126.027	63.341
2. Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak	8.054.458	5.947.127
3. Hainbat hartzekodun	4.954.667	1.662.175
4. Pertsonala (ordaintzeko dauden lansariak)	105.969	50.000
5. Zerga korrontearen pasiboak	420.679	-
6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	51.257	22.989
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	18.605.018	8.756.960

1.2) Galdu Irabazien Kontua

GALDU IRABAZI KONTUA	2014.12.31	2013.12.31
A) ERAGIKETA JARRAITUAK		
1. Negozio zifraren zenbateko garbia	46.324.760	6.535.452
a) Salmentak	46.324.760	6.535.452
2. Produktu bukaturen eta fabrikazio-bideko produktuen izakinen aldakuntza	-	-
3. Enpresak bere aktiborako egindako lanak	-	-
4. Hornikuntzak	(37.100.567)	(5.003.485)
a) Salgaien kontsumoa	(36.988.158)	(5.003.485)
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa	(55.866)	-
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak	(34.853)	-
d) Salgaien, lehengaien ete bestelako hornikuntzen narriadura	(21.690)	-
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak	5.107	10.349
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	5.107	10.349
6. Pertsonal-gastuak	(902.228)	(197.340)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	(704.455)	(165.603)
b) Karga sozialak	(197.773)	(31.737)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(5.211.601)	(868.526)
a) Kanpoko zerbitzuak	(5.475.834)	(602.693)
b) Tributuak	(1.600)	-
c) Eragiketa-komertzialeko galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak	265.833	(265.833)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	-	-
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(7.795)	(448)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena	-	-
10. Hornidura-soberakinak	-	-
11. Ibilgetuaren narriadura eta besterentzearen emaitza	-	-
12. Beste emaitzak	(3.889)	-
A.1) USTIAPENENKO EMAITZA	3.103.787	476.002
13. Sarrera finantzarioak	8	-
a) Ondare-tresnetako partaidetzen sarrerak	-	-
b) Balore-negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak	8	-
14. Gastu finantzarioak	(178.901)	(3.915)
b) Hirugarrenetikiko zorrenak	(178.901)	(3.915)
14. Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntza	-	-
15. Kanbio-diferentziak	(959.329)	74.018
16. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak	-	-
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA	(1.138.222)	70.103
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA	1.965.565	546.105
17. Mozkinen gaineko zerga	(498.156)	(138.209)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA	1.467.409	407.896
B) ETENDAKO ERAGIKETAK	-	-
18. Ekitaldian etendako eragiketarik sortutako emaitza, zergarik gabe	-	-
A.5) EKITALDIKO EMAITZA	1.467.409	407.896

1.3) Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-Orria**A) 2014KO ABENDUAREN 31AN AMAITUTAKO EKITALDIAN KONTABILIZATUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA**

	2014	2013
GALDU-IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZAK (I)	1.467.409	407.896
ZUZENEAN ONDARE GARBIRA EGOTZITAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA (II)	-	-
GALDU-IRABAZIEN KONTURA EGINDAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA (III)	-	-
KONTABILIZATUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA (I+II+III)	1.467.409	407.896

B) 2014KO ABENDUAREN 31AN AMAITUTAKO EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA-ORRIA

	KAPITALA	LEGEZKO ERRESERBA	BORONDATEZKO ERRESERBAK	EKITALDIKO EMAITZA	GUZTIRA
SALDOA 2013KO UZTAILAREN 5EAN (SOZIETATEAREN SORRERA DATA)	3.000	-	-	-	3.000
Kontabilizatutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	407.896	407.896
Bazkide edo jabeekiko eragiketak					
-Kapital-gehitzeak	197.000	-	-	-	197.000
SALDOA 2013KO URTE AMAIERAN	200.000	-	-	407.896	607.896
Kontabilizatutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	1.467.409	1.467.409
2013. urteko ekitaldiko emaitzaren banaketa	-	40.000	367.895	(407.896)	-
SALDOA 2014KO URTE AMAIERAN	200.000	40.000	367.896	1.467.409	2.075.305

1.4) Diru Fluxuen Aldaketan Egoera-Orria

	2014	2013
A) USTIAPEN-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK (I)	1.311.214	(11.689)
1 Ekitaldiko zerga aurreko emaitza	1.965.565	546.105
2 Emaitzaren doikuntzak	915.051	491.191
a) Ibilgetuaren amortizazioa	7.795	448
b) Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak	22.466	-
c) Hornidura aldaketak	(268.583)	268.583
g) Sarrera finantzarioak	(8)	-
h) Gastu finantzarioak	178.901	3.915
k) Bestelako sarrerak eta gastuak	974.480	218.245
3 Kapital korrontearen aldaketak	(1.173.771)	(1.045.070)
a) Izakinak	(1.670.000)	(2.893.725)
b) Zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak	(5.162.867)	(5.639.367)
c) Bestelako aktibo korronteak	(12.983)	(6.173)
d) Hartzekodunak eta ordaintzeko bestelako kontuak	5.672.079	7.494.195
4 Ustiapen-jardueretako bestelako diru-fluxuak	(395.631)	(3.915)
a) Interesen ordainketa	(178.901)	(3.915)
c) Interes-kobrantzak	8	-
d) Mozkinen gaineko zergen kobrantzak	(216.738)	-
5 Ustiapen jardueren diru-fluxuak		
B) INBERTSIO JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK (II)	(124.425)	(14.696)
6 Inbertsioen ordainketak	(125.058)	(14.696)
b) Ibilgetu ukiezina	(37.184)	(4.942)
c) Ibilgetu materiala	(87.874)	(6.627)
e) Bestelako aktibo finantzarioak	-	(3.127)
7 Desinbertsioen kobrantzak	633	-
e) Bestelako aktibo finantzarioak	633	-
8 Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak		
C) FINANTZAKETA-JARDUERETAKO DIRU-FLUXUAK (III)	2.480.371	536.286
9 Ondare-tresnen kobrantzak eta ordainketak	-	200.000
a) Ondareko-tresnen jaulkipena	-	200.000
10 Pasibo finantzarioko tresnen kobrantzak eta ordainketak	2.480.371	336.286
a) Jaulkipena		
2 Kreditu-erakundeekiko zorrak	2.480.371	336.386
11 Dibidendu-ordainketak eta bestelako ondare-tresnen ordainsariak	-	-
12 Finantzaketa jardueretako diru-fluxuak	-	-
D) KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA (IV)	-	-
E) ESKU-DIRUAREN EDO BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/ GUTXITZE GARBIA (I+II+III+IV)	3.667.160	509.901
Esku-dirua edo baliokideak ekitaldi-hasieran	509.901	-
Esku-dirua edo baliokideak ekitaldi-amaieran	4.177.061	509.901

1.5) Memoria

2014. urteari dagokion Memoriaren edukia honako hau da:

1. Enpresaren jarduera
2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak
3. Emaizten aplikazioa
4. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak
5. Ibilgetu materiala, ukiezina eta ondasun higiezinak inbertsioak
6. Aktibo finantzarioak
7. Pasibo finantzarioak
8. Fondo Propioak
9. Egoera fiskala
10. Sarrerak eta gastuak
11. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak
12. Loturadun alderdiekiko eragiketak
13. Bestelako informazioa

2. Eranskina: Agindu Gutuna

Jarraian 210 NIA-ES Arauari jarraiki prestaturiko Agindu Gutuna aurkezten dugu. Azpimarratu beharra dago, soilik agindu edo enkargu honentzako nabarmentzekoak edo bereizgarriak izan diren paragrafoak aurkezten ditugula.

AGINDU GUTUNA 210 NIA-ES Arauari egokitua

2014ko abenduaren 15a

Guremugikor S.L. Sozietatea
Ibaizabal Bidea, 115
Zamudioko Parke Teknologikoa
48170 Zamudio
Jaun agurgarriak:

Ikuskaritzaren helburua eta eremua

Zuen eskaera izan da guk 5 urteko epean Guremugikor S.L. sozietatearen urteko kontuak ikuskatzea, 2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018 ekitaldietako abenduaren 31an bukatutako ekitaldietako balantzea, galdu-irabazien egoera, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera eta memoria biltzen dituztenak. Gutun honen bidez atseginez baieztatzen dizuegu ikuskaritzako enkargua onartzen dugula eta bere edukia ulertzen dugula. Gure ikuskaritza urteko kontuei buruzko iritzi tekniko bat adierazteko helburuarekin egingo dugu.

Ekitaldi bakoitzeko ikuskaritza bukatzean, gure ikuskaritza txostena igorriko dugu, honek aztertutako urteko kontuei buruzko gure iritzi teknikoa barneratuko duelarik.

Auditorearen erantzukizunak

NIA-ES 210 Arauak ezarritako xedapenak jorratuz prestatua.

Zuzendaritzaren erantzukizunak eta aplikagarria den informazio finantzarioaren esparruaren identifikazioa

NIA-ES 210 Arauak ezarritako xedapenak jorratuz prestatua.

Txostenak

NIA-ES 210 Arauak ezarritako xedapenak jorratuz prestatua.

Bestelako informazio esanguratsua

Ordainsariak eta Fakturazioa

Urteko kontuen ikuskaritza zerbitzuengatik gure ordainsariak, lana egitean erabilitako denboraren eta gure auditoretza elkarte edo kontuen auditore bezala aplikatzen diren orduen tarifen araberakoak dira.

2014ko abenduaren 31an itxitako ekitaldiko kontuei dagozkienak, 10.000 eurokoak dira. Zenbateko honi gehituko zaizkio zuen kontura egindako gastuak eta dagokion BEZa.

Estimazio hau egiteko ondorengo premisatan oinarritu gara:

- Erakundeak bere urteko kontuak emango dizkigu, Administrazioaileek behar bezala egindakoak indarrean dagoen merkataritza legeriak ezartzen duen epearen barruan.
- Erakundeak zenbait lan prestatzeko bere laguntza osoa emango digu, hala nola, kontuen analisisan, saldoen diferentzien kontziliazioetan, egiaztagirien eta erregistroen bilaketetan, eta abar. Lan hauek eta aukeratzen ditugun egiaztatzeen eskaera gutunak gure esku jarriko dira elkarren artean adostutako epean.

Gure lana egitean, hitzarmen hau egin den baldintzetan aldaketarik nabaritutako bagenu, hala nola, fusioak, absortzioak, helburu sozialean aldaketak, negozio bolumenaren edo ondarearen zenbatekoan aldaketak, kontabilizazio irizpideetan aldaketak, eskatu zaizkizuen zehaztasunetan errakuntzak, kontabilitate sisteman aldaketak edo bestelako antzeko batzuk, jakinaraziko genizueke, suertatutako aldaketen ondorioz egin beharreko ordu kopuruan oinarrituz estimatutako ordainsariak aldatzera eramán gaituzten arrazoia azalduz.

Estimazio honek balioa izango du hitzarmen hau egiteko oinarri izan diren baldintzak aldatzen ez diren bitartean. Ondoren, Kapital Sozietateen Legearen 270.2 artikulua jasotzen duen kontuen aldaketari buruzko ebidentzia gehigarriak jasoko bagenu, gure txostena aldatuko gure dagokien ordainsarien fakturazio gehigarria egingez.

Ondorengo ekitaldi bakoitzerako gure ordainsariak urtero aldatuko dira, oinarri bezala 2014 ekitaldirako zehaztutako zenbatekoa hartuz, gure auditoretzako orduko ordainsarien arabera Kontsumoaren Prezioaren Indizeak zerbitzuen sektorean (alokairurik gabe) duen portzentajearen baliokidetasuna oinarri bezala hartuz.

Aipatutako ordainsarien kobrua ondorengo egutegia jarraituz egingo da:

- Zenbatekoaren %20a, lanak hastean.
- %50a, landa-lana bukatzean.
- Gainerako %30, dagozkien txostenak ematean.

Lanaren egutegia eta emateko epea

Ikuskaritzaren plangintzari eta egiteari buruzko gure planen jakinean jartzen zaituztegu.

Lanaren garapena ondorengo egutegiaren proposamenaren arabera izango litzateke:

<u>Hilabeteak</u>	<u>Burutuko diren lanen deskripzioa</u>
Abendua/Urtarrila	Ikuskaritzaren Plangintza: <ul style="list-style-type: none"> - Erakundearen eta sektorearen berezitasunen ezagupena. - Ebaluaketa analitikoa. - Barne kontrolaren ulermena. - Garrantzi erlatiboa. - Ikuskaritza arriskuaren balorazioa.
Urtarrila/Otsaila	Arlo bakoitzeko lana burutzea.
Martxoa	Txostenen inguruko eztabaida

Txostena igortzea eta erakundeari ematea, txostenak kontuen ikuskaritza kontratatzen den helburua bete ahal izateko eran egingo da, muga Batzar Orokorrak urteko kontuak onartzeko deialdiaren data izango delarik, data hau Kapital Sozietateen Legeak ezartzen du.

Aipatutakoaren eraginik gabe, lana egitean txostenaren igorpen datan eragina izan dezaketen egoerak nabaritzen baditugu eta hauek guk (auditorengatik) sortuak ez badira, egoera hau emango zaizuen idatzi batean zehaztuko da, bertan egoerak eta ikuskaritza txostenaren igorpenean izan ditzaketen eraginak adieraziz.

Enkarguaren terminoetan aldaketak

NIA-ES 210 Arauak ezarritako xedapenak jorratuz prestatua.

Auditoreen izendatzea


Gogoratzen dizuegu, Kapital Sozietateen Legearen arabera, erakundearen Batzar Orokorrak kontuen auditorea izendatu behar duela urtean zehar eta ikuskatu behar den ekitaldia bukatu baino lehen, hau da, 2014ko abenduaren 31a baino lehen epe zehatz baterako, ezin izango delarik ikuskatu behar den lehen ekitaldia hasten den datatik hiru urte baino epe laburragokoa eta bederatzik baino luzeagokoa, Batzar Orokorrarengatik (Biltzarrak) berriro aukeratua izan ahal dena hiru urteko gehiengo epeetan behin lehen epea bukatuta.

Arren eskatzen dizuegu gutun honi atxikitako kopia sinatzea eta itzultzea, urteko kontu hauen gure ikuskaritzari buruzko akordioak ezagutzen eta onartzen dituzuela adierazteko, dagozkigun erantzukizunak barne.

Gure esker ona adierazi nahi dizuegu aipatutako zerbitzu profesionalerako gu hartu gaituzuelako kontuan.


Adeitasunez,

Auditorea:



Kepa Fernandez de Antona Garmendia

Guremugikor S.L.ko Zuzendari Orokorra:



Joseba Irazabal

3. Eranskina: Egoera Balantze eta Galdu Irabazien Kontu birsailkatua

AKTIBOA	2014		2013		ALDAKUNTZA 2014-2013	
	BAL ABS.	BAL. ER.	BAL ABS.	BAL ER.	Δ ABS.	Δ%
IBILGETUA	130.878	%0,70	89.451	%1,02	41.427	%46,31
I. Ukiezina	40.747	%0,22	4.860	%0,06	35.887	%738,42
I. Materiala	87.637	%0,47	6.261	%0,07	81.376	%1.299,73
I. Finantzarioa	2.494	%0,01	78.330	%0,89	(75.836)	%-96,82
AKTIBO ZIRKULATZAILEA	18.474.140	%99,30	8.667.509	%98,98	9.806.631	%113,14
BIHURGARRI BALDINTZATUA	4.542.035	%24,41	2.894.142	%33,05	1.647.893	%56,94
Izakinak	4.542.035	%24,41	2.894.142	%33,05	1.647.893	%56,94
BIHURGARRI ZIURRA	9.755.044	%52,43	5.263.466	%60,11	4.491.578	%1.392,87
Bezeroak	7.980.833	%42,90	4.848.020	%55,36	3.132.813	%1.064,48
Hainb. Hartzk., Perts. eta Adm. P.	1.755.055	%9,43	409.690	%4,68	1.345.365	%328,39
Epe Lab. Finantza Inbertsioak	-	-	-	-	-	-
Periodifikatzeak	19.156	%0,10	5.756	%0,07	13.400	%232,80
ERABILGARRIA	4.177.061	%22,45	509.901	%5,82	3.667.160	%719,19
Eskudirua eta Best. Akt. Lik. Bal.	4.177.061	%22,45	509.901	%5,82	3.667.160	%719,19
AKTIBOA GUZTIRA	18.605.018	%100	8.756.960	%100	9.848.058	%112,46

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2014		2013		ALDAKUNTZA 2014-2013	
	BAL. ABS.	BAL.ER.	BAL. ABS.	BAL.ER.	Δ ABS.	Δ%
BALIABIDE PROPIOAK	2.075.304	%11,15	607.896	%6,94	1.467.408	%241,39
Fondo Propioak	2.075.304	%11,15	607.896	%6,94	1.467.408	%241,39
Kapital eskrituratua	200.000	%1,07	200.000	%2,28	-	-
Erreserbak	407.896	%2,19	-	-	407.895	-
Ekitaldiko Emaizta	1.467.408	%7,89	407.896	%4,66	1.059.513	%259,75
Balio-aldaketen doikuntzak	-	-	-	-	-	-
Diru-laguntz., Dohaintz., Leg.	-	-	-	-	-	-
E/L P. GALDAGARRIA	399.998	%2,15	-	-	399.998	-
E/L Hornidurak	-	-	-	-	-	-
Zerga Geroratuen Pasiboak	(2)	-	-	-	(2)	-
Kreditu Erakundeekin Zorrak	400.000	%2,15	-	-	400.000	-
P. ZIRKULATZAILEA	16.129.714	%86,70	8.149.064	%93,06	7.980.650	%97,93
E/Lab. Hornidurak	-	-	67.146	%0,77	(67.146)	%-100
Kreditu Erakundeekin Zorrak	2.416.657	%12,99	336.286	%3,84	2.080.371	%618,63
Hartz. Komertz. eta OBK	13.713.057	%73,71	7.745.632	%88,45	5.967.425	%77,04
Hornitzaileak	126.027	%0,68	63.341	%0,72	62.686	%98,97
Hornitzaileak, Tald. Enp. eta Elk.	8.054.458	%43,29	5.947.127	%67,91	2.107.331	%35,43
Hartzekodunak	5.481.315	%29,46	1.712.175	%19,55	3.769.140	%220,14
Administrazio Publikoak	51.257	%0,28	22.989	%0,26	28.268	%122,96
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	18.605.018	%100	8.756.960	%100	9.848.058	%112,46

GI KONTUA	2014		2013		ALDAKUNTZA 2014-2013	
	BAL. ABS.	BAL. ER.	BAL. ABS.	BAL. ER.	Δ ABS.	Δ%
SALMENTA GARBIAK	46.324.760	%100	6.535.452	%100	39.789.308	%608,82
SALMENTEN KOSTUA	(37.100.567)	%-80,09	(5.003.485)	%-76,56	(32.097.082)	%641,49
MERKATARITZA MARJIN GORDINA	9.224.193	%19,91	1.531.967	%23,44	7.692.226	%502,11
					-	
USTIAPENENKO BESTELAKO SARRERAK	5.107	%0,01	10.349	%0,16	(5.242)	%-50,65
PERTSONAL GASTUAK	(902.228)	%-1,95	(197.340)	%-3,02	(704.888)	%357,19
AMORTIZAZIO ZUZKIDURAK	(7.795)	%-0,02	(448)	%-0,01	(7.347)	%1.639,96
USTIAPENENKO BESTELAKO GASTUAK	(5.211.601)	%-11,25	(868.526)	%-13,29	(4.343.075)	%500,05
USTIAPENENKO BESTELAKO EMAITZAK	(3.889)	%-0,01	-	-	(3.889)	-
USTIAPENENKO EMAITZA	-6.120.406	%-13,21	-1.055.965	%-16,16	(5.064.441)	%479,60
					-	
SARRERA FINANTZARIOAK	8	-	-	-	8	-
GASTU FINANTZARIOAK	(178.901)	%-0,39	(3.915)	%-0,06	(174.986)	%4469,63
BESTELAKO EMAITZA FINANTZARIOAK	(959.329)	%-2,07	74.018	%1,13	(1.033.347)	%-1.396,08
EMAITZA FINANTZARIOA	-1.138.222	%-2,46	70.103	%1,07	(1.208.325)	%-1.723,64
					-	
ZERGA AURREKO EMAITZA	1.965.565	%4,24	546.105	%8,36	1.419.460	%-741,92
					-	
MOZKINEN GAINEKO ZERGAK	(498.156)	%-1,08	(138.209)	%-2,11	(359.947)	%260,44
EKITALDIKO EMAITZA	1.467.409	%3,17	407.896	%6,24	1.059.513	%259,75

4. Eranskina: Barne Kontrolaren ulermenerako galdera sorta

	BAI	EZ	AZALPENAK
KONTROL INGURUA			
1. Balore etiko eta zintzotasunaren komunikazio eta zainketa: -Kode etiko/zintzotasun politika/balore etikorik existitzen al da?		✓	
2. Zuzendaritza edota gobernu organoen filosofia eta jarduteko estiloa: -Zer aplikatzen du sozietateak kontabilitate politika konterbadore edo erasokorrek? -Iraganean hurrengo baldintza edo egoerak sortu diren ezagutza dugu? a) Egoera Orri Finantzarioetan edota datu finantzarioetan nahita egindako akatsak. b) Kontrolen betekizun eza. d) Adierazpen faltsu edo zehaztu gabeak. e) Ikerketa kriminal, prozesamenduak edo delituengatik kondenak. f) Maula, iruzur edo antzekoengatik irekitako prozesu judizialean loturarik izatea. g) Ikuskarrien aurkako demandak edo antzeko liskarrak. h) Ondasunez jabetzea modu desegokian.		✓	Kontserbadoreak.
3. Antolakuntza egitura: -Zein da sozietatearen funtzioen organigrama?			Hierarkia klasikoa.
4. Sozietatearen gobernuaren erantzuleen parte hartzea: -Zer nolako batzordeak daude? Zein da haien konposaketa? Independentek al dira? Haien betebeharrak aurrera eramateko esperientzia nahikoa dute? Zeintzuk dira haien erantzukizunak? Zein da burutzen dituzten bileren periodikotasuna?		✓	Ez dago batzorderik. Baina taldetik kontrol erregularra burutzen da.
5. Autoritate eta erantzukizunen esleipena: -Ikuskapen prozesuan garrantzia izan dezaketen autoritate edo berrikusketa mailarik existitzen da? Sozietatearen tamaina eta honek burutzen dituen jarduera motak kontuan hartuta egokiak dira? -Antolakuntzan postu, betebeharrak eta erantzukizunen definizio argi bat al dago? Nola definitzen dira? Nork definitzen ditu?			Funtzioen segregazioa. Esperientzia altua.
6. Giza baliabideekin loturiko politika eta praktikak: -Zer politika/praktika ezartzen ditu sozietateak indibiduo kualifikatuenean hautapenerako?			Formakuntza/esperientzia altua bilatu.
7. Lehiakortasunarekin konpromesua: -Enplegatuen hautapenean, hautagaiek bete beharreko konpetentzia minimo batzuk ezartzen dira?		✓	
SOZIEATEAK ARRISKUA BALORATZEKO DUEN PROZESUA			
-Arriskuen mapa bat du? Nork onartzen du arriskuen mapa?		✓	
-Zer ekintza edo neurri burutzen ditu sozietateak identifikaturiko arriskuak murrizteko?			Funtzioen segregazioa, hilabetero itxieren berrikusketak eta taldeari berrikusketen nondik norakoak bidali...
INFORMAZIO FINANTZARIOAREN GARRANTZITSUA DEN INFORMAZIO SISTEMA			
-Ikuskapen prozesuan garrantzitsua izan daitekeen aplikazio informatikorik du sozietateak?	✓		Spyro sistema informatikoa.
IKUSKARITZARAKO NABARMENAK DIREN KONTROL EKINTZAK			
1. Emaitzen berrikusketa: -Zer konparaketa tresna ezartzen du sozietateak emaitza errealak eta aurrekontuak konparatzeko?		✓	Aurten ez du aurrekonturik kalkulatu.
2. Funtzioen segregazioa: -Zer nolako kontrol neurriak ezartzen ditu sozietateak bermatu ahal izateko edonork ezin duela transakzio bat, onartu, kontabilizatu, ordaindu/kobratu, eta aktiboak babestu? -Funtzioen segregazioa bermatzen duen beharren eredu bat du?			Departamentu bakoitzean funtzioen segregazio argia eta enplegatu bat baino gehiago dago.
3. Berrikusketa: -Berrikusketak konpetentzia eta gaitasun nahikoa duen pertsona batek egiten du?	✓		Bai, Asier Urquijok.
4. Kontrol fisikoak: -Zer nolako tresnak ditu sozietateak informatika sistemaren erregistroak aktiboen ebidentzia fisikoarekin konparatzeko? -Berdinkatzeak edota inbentario fisikoak burutzeko erantzukizuna duten pertsonak eta datuak prozesatzen dituzten pertsonak desberdinak dira?		✓ ✓	
KONTROLEN JARRAIPENA			
1. Kontabilitate funtzioaren berrikusketa eta kontrola: -Kontrolak behar den moduan funtzionatzen dutela baieztatzen duen departamentu edo pertsonarik existitzen da?	✓		Bai, Asier Urquijo.
2. Barne bilerak eta komunikazioa zuzendaritzari kontrolen efikaziari buruz informatzeko: -Zuzendaritzak edota gobernu organoek barne indikatzaileen betekizuna ebaluatu egiten dute? -Zer nolako jarraipen ekintzak burutzen dituzte zuzendaritzak edota gobernu organoek barne edo kanpo ikuskaritzan jatorria duten barne kontrolaren inguruko komunikazioekin?	✓		Asier Urquijo eta Joseba Irazabal hilabetero bildu.
Iturria: Alonso eta beste batzuk, 2014, 112-113 orriak.			

5. Eranskina: Izakinen arloa

Izakinen arloan erabili den lan paperen erreferentzia zenbakia 23400 izan da.

5.1) Izakinen arloaren barne kontrola → 23400.1 lan papera

Bezeroa:	Guremugikor S.L.
Nork prestatua:	K.F.
Nork berrikusia:	K.F.
Lan arloa:	Izakinak
Ikuskatze data:	2014/12/31
Titulua:	Barne kontrolaren galdera sorta

GALDERA	BAI	EZ	AZALPENAK
1) IZAKINAK KONTABILITATE-KONTROL EGOKIAREN MENDE DAUDE			
a. Inbentario iraunkorra erabiltzen al da (kantitateak eta balioak adieraziz) inbentario mota gehienentzat?	✓		Hilero bidaltzen zaio taldeari.
b. Balioa erregistratzen denean, aldiro liburu nagusiarekin alderatzen al da?	✓		
c. Biltegiko erregistro zehatzak merkantziatara sarbiderik ez duten pertsonak erabiltzen al dituzte?		✓	
2) IZAKIN GUZTIAK IDENTIFIKATUTA ETA BABESTUTA DAUDE			
a. Izakin moten ardura izango duten pertsonak izendatuta al daude?	✓		
b. Lapurretek eragin dezaketen galeren aurka ongi babestuta al daude izakinak, hau da, baimendutako pertsonak baino sar ez daitezkeen biltegi edo lokal itxietan al daude biltegitratuta?	✓		
c. Biltegiko arduradunek albaranean dauden zenbatekoak biltegitara sartutako benetako kopuruekin alderatzen al ditu? Bestalde, biltegitik ateratzen den materiala onartutako dokumentuekin bakarrik ateratzen al dute edo irteerako albaraneekin?	✓		
d. Merkantzia zaharkitu edo akasduaren helburua arduradun erantzuleak erabaki al du?		✓	
e. Hornitzaileen biltegian edo biltegi publikoetan kontsignazioan dauden izakinak, urte fiskala amaitzean fisikoki kontatzen al dira? Urte fiskala amaitzean ziurtatzen al dira, kontaketa fisikoa egin ez bada? urtean zehar kontaketa fisikoa egin al dira? Urtean zehar ziurtatzen al dira?	✓		
f. Kontaketa fisikoa honako puntu hauek izan behar ditu kontuan: -Idatzizko jarraibide egokiak. -Gainbegiraketa egokia. -Partida jakin batzuen (inbentario zaharkitua, hondakinak, merkantzia kontsignazioan, konpondu beharreko merkantzia...) azalpen argiak. -Kontaketa eta deskribapenak ziurtatzea, erregistro iraunkorrek daudenean edo erregistro iraunkorreko ezberdintasuna handia denean.		✓	Kontaketak ez dira oso zorrotzak.
g. Kontsignazioan dauden merkantziek behar bezala identifikatuta egon behar dute, inbentario fisikoan ez sartzeko. Stock zaharkituen edo kaltetuen identifikazioa esperientzia duten langileek egin behar dute. Arreta izan behar dute partida hauek identifikatzeko garaian, inbentarioko balorazio faltsuak saihesteko. Beraz, komeni da: -Kontatzaileek kontaketa-orri edo etiketa guztietan sinadura edo inisialak jartzea. -Ekoizpen- mozketak, igorpen, jasotze, planten artean dabilzan partiden... egokiera izatea. -Diferentzia esanguratsuak ikertzea. -Inbentarioan izandako ezberdintasunengatik erregistroen doikuntzak egitea (biltegiak ez den arduradunak onartu ondoren).	✓	✓ ✓ ✓	Ez dukate esperientzia nahikorik.
3) IZAKINEI DAGOZKIEN FABRIKAZIO-KOSTUAK EGOZTEN ZAIZKIE			
a. Sistema finantzario-kontableak kontrolatzen duen kostu-sistema ba al dago?			Ez da aplikagarria.
b. Irizpideetan edo hauek erabiltzean akats larriak nabari al dira kostu-sisteman? (inbentarioetan diferentzia handiak, kostuetan desbiderapen handiak, banakako kostuetan gorabehera okerrak...)			Ez da aplikagarria.
c. Kostu estandarrak erabiltzen bada, aldiro berrikusi eta, beharrezko kasuetan, aldaketak egin al dira?			Ez da aplikagarria.
4) INBENTARIOAREN BALORAZIOA EGOKIA DA			
a. Inbentario mota gehienentzat inbentario iraunkorreko sistema erabiltzen bada, balioa erregistratu eta liburu nagusiko kontuekin bat etorrarazten al da?	✓		
b. Biltegiko pertsonalak aldiro informatzen al du zaharkitzeaz, erabili gabeko partidez, mugimendu geldokoez edo gehiegizko biltegitratzeaz?		✓	
c. Stock mota bakoitza baloratuko erabilitako metodoak egokiak al dira egoera bakoitzerako?	✓		
d. Zuzendaritzak onartu al ditu?	✓		

5.2) Izakinen lan programa → 23400.2 lan papera

Bezeroa:	Guremugikor S.L.
Nork prestatua:	K.F.
Nork berrikusia:	K.F.
Lan arloa:	Izakinak
Ikuskatze data:	2014/12/31
Titulua:	Lan programa

	Erref. LP	Nork egina
1) BARNE KONTROLA ETA KONTROL OROKORRA		
a. Berrikusi eta eguneratu izakinak kontrolatzeko erabiltzen diren barne-kontrol eta kontabilitate-prozedurak.		
b. Laburtu barne-kontrolaren puntu ahul eta indartsuak, auditoria-proben aukerak eta eremua zehazteko.		
c. Ikertu izakinen gainean dauden hipotekak, bermeak, pignorazioak, etab.		
d. Erlazionatu lana egoera finantzarioaren beste eremuetan eginiko azterketen emaitzekin.		
e. Aztertu ea izakinen balorazio-irizpideak aurreko ekitaldiekiko era uniformean erabili diren.		
2) INBENTARIO FISIKOA		
a. Inbentario fisikoa egin aurretik, erakundeak prozesu horretarako dituen jarraibideak irakurri, ea erabatekoa den begiratu eta honako aipamen hauek egin diren aztertu: -Inbentario hasieraren data eta ordua. -Txartelen kontrola. -Kontakteta fisikoa egiteko arduraren banatzea. -Materialen deskribapena eta kantitateak erregistratzeko modua. -Lehen kontakteta eta bigarren kontaktetaren artean izandako aldeak, eta horiek egiaztatze eta argitze arauak. -Erakundearen ez diren materialak bereiztea. Inbentario fisikoa egin behar den datan, plantan eta biltegietan ibilaldi bat egin eta honako hauek ikusi: -Materialak fisikoki ongi antolatuta dauden. -Lan-taldeek ongi egiaztatzen duten eta zehatz kontatzen duten. -Egoki gainbegiratzen den. -Planta, dibisio eta biltegien artean materialen mugimendurik dagoen. -Izakinak, jasotakoak eta igorritakoak, egoki bereizten diren.		
b. Izakinak kontatu, ondoren behar bezala baloratutako zerrendekin egiaztatze. Begiratu kontatutako kopuruak inbentarioko txartelatan dauden zenbakeoekin bat datozen. Kontakteta bakoitzaren inguruko informazioa jaso, eta honako informazio hauek adierazi: -Txartelaren zenbakia. -Kontatutako partidaren kodea. -Kontatutako partidaren deskribapena. -Kokapen fisikoa. -Kontatutako unitateak. -Unitateen zenbakeoa, kontakteta-txartelaren arabera. -Ezberdintasunen azalpena. -Kontatutako partidaren egoera fisikoa.	23400.3.2	KF
c. Kontakteta-eremua aldeztu aurretik erabaki behar da. Lehengaien, bideango produktuen eta produktu bukatuen partidak sailkatu egin behar dira. Bideango produktuen kasuan ahalik eta gehien zehaztu behar da bere akabera-maila.		
d. Inbentarioa guztiz bukatuta dagoenean, planta eta biltegi guztietan ibilaldia egingo da, produktu guztiek beren inbentarioko txartela dutela egiaztatze.		
e. Lan-paperetan produktu zaharkituren bat edo mugimendu geldokoren bat dagoen apuntatuko da, arazoren bat sor badezakete.		
f. Hirugarrenen eskuetan dauden izakinen zerrenda eskuratuko da, beraien ziurtapena idatziz eskatzeko edo inbentario fisikoa egiteko.		
g. Azken irteera- eta sarrera-agiriak eskuratu inbentario fisikoa egin aurretik eta ondoren, kontabilitate-erregistroekin egiaztatze.		
h. Inbentario fisikoa egikaritzearen memoranduma prestatu, bertan izandako arazo nagusiak eta kontaktetaren ondorio garrantzitsuenak aipatu.	23400.3.2	KF
3) IZAKINEN ZEHAZTASUNAK EGIAZTATZEA		
a. Eskuratu izakinen laburpenaren zerrenda edo orrien kopia. Bertan kopuruak, banakako prezioak, guztizko balioa eta beharrezko diren deskribapen guztiak aipatuko dira, produktuak identifikatzeko.	23400.3.2	KF
b. Egin eragiketa aritmetikoen proba, hautaketa-probak oinarri harturik.		
c. Alderatu inbentario fisikoan jasotako zenbakeoak izakinen zerrendarekin.	23400.3.2	KF
d. Alderatu inbentario fisikoan jasotako txartel batzuk izakinen zerrendarekin, eta konparatu izakin- zerrendako beste talde bat inbentario fisikoko txartelekin. Horrela txartel guztiak izakinekin harremanetan egoki daudela egiaztatuko da.		
e. Alderatu hirugarrenen eskuetan dauden kantitateak izakinen zerrendarekin.		
f. Egiaztatu hirugarrenenak diren produktuak izakinen zerrendan ez direla sartu.		
g. Zehaztu lehengai, bideango produktu eta produktu bukatuak egoki sailkatu direla.		
h. Alderatu izakin bakoitzaren zenbateko totala liburu nagusikoarekin, eta jakin eginiko doikuntzak garai egokian eta zenbateko egokiaz erregistratu diren.		
i. Inbentarioko txartelen zenbakizko kontrolen egiaztatzea egin. Horrela zehaztu egingo da guztiak izakinen zerrendan barne sartu direla eta erregistroan bikoizketarik ez dagoela.		
4) IZAKINEN BALORAZIOA		
a. Ikertu izakinak baloratzeko erabilitako prozedura eta politikak, eta zehaztu egokitasuna.	23400.3.4	KF

b.	Aukeratu lehengaien zerrendatik partida garrantzitsuenak, erakundeak ezarriko prozeduraren arabera, horien balorazioa egiaztatzeko. Izakinen zerrendako datuak: -Partidaren kodea . -Deskribapena. -Unitate kopurua. -Banakako prezioa. -Zenbatekoa . Azken fakturetatik lortu beharreko datuak: -Fakturaren zenbakia. -Fakturaren data. -Hornitzailea. -Unitate kopurua. -Banakako prezioa. -Zenbatekoa . -Izakinen zerrendaren arabera, banakako prezioaren eta azken fakturetan agertzen denaren arteko diferentzia. -Guztizko diferentzia (inbentarioko unitate-zenbatekoa lehen aipaturiko diferentziarekin biderkatuz).		
c.	Egin lortutako diferentzien laburpena, erakundeak ezarriko prozeduraren arabera, bere balorazioa egiaztatzeko.	23400.3.4	KF
d.	Sailkatu produktu bukatuak garrantzi handienaren arabera, eta lortu bakoitzaren kostuen orriak. Alderatu orri bakoitzean jasotako datu guztiak lan-paperetakoekin eta burutu honako egiaztapen hauek: -Zehaztu kostu-orrietan ageri diren lehengaien kostuak lehengaien balorazio-probetan erabilitako berak direla. -Aztertu fisikoki fabrikazio-orrietan dauden materialak benetakoak direla. -Aztertu produkzioan orduak benetan erabili direla, ingeniari-tza-ikerketekin alderatuz eta ikerketa fisikoa eginez. -Aztertu eskulanaren kostua, nominetan egindako proben emaitzekin alderatuz. Bertan ordu bakoitzeko balioa kalkulaturik egongo da. -Kalkulua egin zeharkako gastuen benetakotasuna aztertzeko; baita beste fabrikazio-kostuekin ere, izakinen balioan barne baitaude.		
e.	Aztertu bideango produktuen balorazioa, partida garrantzitsuenak aukeratuz, eta xehetasun-proba egin honako hauek barne hartuz: -Lehengaien prezioa (frogatu prezioen egiaztapen-proban lortutako emaitzarekin bat datorrela). -Eskulana eta fabrikazio gastuak (frogatu produktua zegoen produkzio fasearen arabera banatu direla). -Egiaztatu fisikoki azalduetako kopuruak inbentario fisikoan zerrendan ageritakoekin bat datozela.		
f.	Lortu lehengai, bideango produktu eta produktu bukatuen zenbatekoak ordezkatzen dituzten agiriak. Horrela beren kostu-balioak fabrikazio-balio garbia ez duela gainditzen egiaztatuko da. Kalkulu hau burututakoan, etorkizuneko erosketan izango lukeen eskurapen-prezioa kostuekin alderatuko da (lehengaien kasuan). Produktu bukatuen kasuan kontratatutako prezioa alderatuko da kostuekin, zuzeneko kostuak gutxituz. Lortutako balioa kostu-prezioa baino baxuagoa balitz, izakinetan fabrikazio-arazoren bat egongo litzateke.		
g.	Eztabaidatu eta baloratu erakundeak erabilitako prozedurak eta horiek betetzea, mugimendu geldoko produktuen balorazioan, produktu zaharkituetan, gehiegizko stocketan... izandako arazoak ezagutzeko. Diseinatu partida garrantzitsuenen eredu bat, eta ikertu izakinetan ze haztutako kopuruak benetakoak diren, betiere hurrengo ekitaldirako aurreikusita dauden erabilera eta salmentak kontuan hartuz.		
h.	Inbentario fisikoan aipatutako produktu zaharkituak eta zenbait arazo zituzten produktuak horrela definituak ditu enpresak. Aztertu izakinen fitxen bidez partida garrantzitsuenek ikuskatutako ekitaldian izandako mugimenduak.		
i.	Bildu balorazio-probetan nabaritutako arazoak memorandumean.		
5)	ERAGIKETEN BANAKETA		
a.	Egiaztatu eragiketen banaketa inbentario fisikoan egin den datan lortutako informazioarekin, proba hauek burutuz: -Egiaztatu inbentario fisikoan egin aurretik jasotako partidak inbentario fisikoan eta inbentarioko txarteletan barne hartu diren eta kontabilitatean erregistratu diren. -Sailkatu inbentario fisikoan egin ondoren jasotako partidak, eta ikusi produktuak biltegian sartu diren eta inbentarioa egin ondorengo datan kontabilitatean erregistratu diren.		
b.	Egiaztatu inbentario fisikoan egin den datan lortutako informazioarekin igorpen-eragiketarak gelditu egin direla, proba hauek burutuz: -Ikusi inbentario fisikoan egin aurreko datan eginiko igorpenak salmenta bezala erregistraturik dauden eta produktuak izakinetatik at dauden. -Jaso inbentario fisikoan egin ondoren eginiko igorpenei buruzko informazioa eta ikusi ongi kontabilizaturik dauden.		
c.	Aztertu sarreren eta irteeren albaranen zenbakizko jarraipena, izakinen mugimenduen bereizketa egiteko.	23400.3.6	KF
d.	Barne mugimenduen bereizketa: egiaztatu inbentario fisikoan egin aurretik eta ondoren izandako barne-mugimenduak (dibisio, biltegi, fabrika... artean) ongi kontabilizatu direla.		
e.	Aukeratu inbentario fisikoan egin aurreko eta ondorengo salmenta garrantzitsuenen fakturak, eta begiratu ea egoki kontabilizatu diren.		
f.	Balorazio-probetan nabaritutako arazoak memorandumean bildu.	23400.3.4	KF
6)	OROKORRA		
a.	Prestatu aukeratutako partiden guztizko zenbatekoa erakutsiko duen laburpen estatistikoa, ondorengo proba hauetako bakoitzerako. Hauek dira frogak: -Kontakteta fisikoak. -Eragiketa aritmetikoak. -Balorazioak. -Zaharkitzeak. -Zehaztu lehengai, bideango produktu eta produktu bukatuen talde bakoitzean estalitako ehunekoak. Ondorioztatu eginiko lanaren estaltzea.		
b.	Azaldu izakinen gainean hipoteka, berme edo antzekorik dagoen. Lan hau beste eremuekin erlazionatu, esaterako: ordaintzeko kontuekin, bankuen baieztapenekin eta zuzendaritza ekonomiko-finantzarioen iruzkinekin.		
c.	Adierazi erabilitako balorazio- irizpideak, kalkuluak, ehunekoak... aurreko urtekoekiko uniformeak diren.		
d.	Azaldu azken aldiak izakinetan izandako zenbatekoen aldaketak.		
e.	Filialen artean edo harreman estua duten konpainien artean izakinak eskuz aldatzen direnean, ikuskariak kontuan hartu behar ditu eskuz aldatzearen balioa zehazteko erabilitako oinarriak. Izan ere, eragiketa garrantzi handikoa bada, banaketaren bat egin beharko litzateke. Egoera finantzario bateratuak aurkezten badira, aipatutako eskualdaketetan izandako irabaziak kendu egin beharko lirateke.		
f.	Idatzi eginiko lana laburbiltzen duen memoranduma, ikuskatze-prozeduraren emaitzak egokiak diren adieraziz. Izakinen saldoak eta egoera finantzarioen notazioen banaketeak ere adierazi, aipatutako ikuskapen-helburuak bete dituen ala ez ondorioztatuz.		
g.	Lanaren arduradunaren eta beste eremuen berrikuspena.		
h.	Egiaztapen-puntu guztiak ixtea.		
Iturria: Azkue, I. 2007, 53-58 orriak.			

5.3) Izakinen MEMOA → 23400.3 lan papera

Bezeroa:	Guremugikor S.L.
Nork prestatua:	K.F.
Nork berrikusia:	K.F.
Lan arloa:	Izakinak
Ikuskatze data:	2014/12/31
Titulua:	Ikuskaritza frogak

Ikuskaritza frogak aplikatu aurretik, 2014.12.31an Egoera Orri Finantzarioetako saldoa:

	2014.12.31	2013.12.31
II. Izakinak	4.542.035	2.894.142
1. Merkataritzazkoak	4.542.035	2.893.725
6. Hornitzaileei emandako aurrerakinak	-	417

	ERREF. LP.
BURUTURIKO IKUSKARITZA FROGAK: Arlo honetan burutuko ditugun ikuskaritza frogak ondorengoak izango dira:	
1) Izakinen epigrafea osatzen duten kontuen xehetasuna lortu.	23400.3.1
2) Izakinen inbentario fisikoa.	23400.3.2
3) Batezbesteko errotazio ekitaldiaren kalkulua.	23400.3.3
4) Balorazio froga. Hornitzaileengatik jasotako fakturretan oinarrituz, ekitaldi amaieran izakinek duten balioa egiaztatzea.	23400.3.4
5) Bidean aurkitzen diren izakinen egiaztapena albaranen bidez.	23400.3.5
6) Erosketa eta salmenta eragiketen etena.	23400.3.6
Iturria: Alonso eta beste batzuk, 2014, 147-190 orriak	

IKUSKARITZA FROGAK

23400.3.1) Izakinen epigrafea osatzen duten kontuen xehetasuna lortu.

Hurrengo taulan izakinen epigrafea osatzen duten kontu ezberdinen xehetasuna aurkezten dugu 2014 eta 2013 urteen ekitaldi bukaeran:

Kontu zb.	Deskripzioa	✓	✓✓	Aldakuntza	%
		2014.12.31	2013.12.31		
300001	Salgaiak	4.022.710	1.924.679	2.098.031	109%
300002	Bidean aurkitzen diren salgaiak	541.015	969.046	(428.031)	(44%)
390001	Salgaien balio narriadura	(21.690)	-	(21.690)	-
	Izakinak guztira	4.542.035	2.893.725	1.648.310	57%

✓ OK 2014. urteko Egoera Orri Finantzarioekin
 ✓✓ OK 2013. urteko Egoera Orri Finantzarioekin

Izakinen xehetasunean egiaztatu dezakegunez, izakinen bilakaerak lotura zuzena du negozioaren bilakaerarekin. Sozietatea sortu zenetik 2013. urtearen erdialdean, bere jarduera bolumena haziz joan da etenik gabe, eta honi aurre egiteko sozietateak bere izakin kopurua handitu egin du. Era honetan, izakinek azken urtean izan duten hazkundea %109koa izan da.

Salgaien kopurua hazi egin den arren, bidean aurkitzen diren salgaiak murriztu egin dira %44an 2013. urtearekiko. Izan ere, 2013. urte bukaeran sozietateak haziz zihoan mugikor eskaerari aurre egiteko, izakin bolumen handia erosi zuen, eta ondorioz, 2013.12.31an erosi zituen salgai hauetako asko bidean aurkitzen ziren. 2014. urtean ordea, sozietateak mugikor eskariaren aurreikuspen hobea egin du eta salgaien erosketa ere erregularragoa izan da urtean zehar. Hori dela eta, izakin kopuru txikiagoa aurkitzen da bideango salgai gisa 2014.12.31an.

23400.3.2) Izakinen inbentario fisikoa.

NIA-ES 501 Arauaren instrukzioak jarraituz, 2015.01.02an inbentario fisiko bat burutu dugu, sozietateak 2014.12.31an izakin moduan kontabilizaturik zuen zenbatekoa egiaztatzeko, 2015.01.01ean ez baitzen mugimendurik egon biltegian. Horretarako, sozietateak 2014.12.31an biltegian izakin moduan aurkitzen diren produktuen zerrenda bat erraztu digu, ondoren guk buruturiko kontaketa fisikoarekin konparatzeko.

Konparaketa hau egin aurretik, sozietatearen biltegian aurkitzen diren izakinei buruzko informazioa aurkeztuko dugu. Sozietateak bi izakin edo produktu mota ditu: mugikorrek eta mugikorrenzako osagarriak. Mugikorren artean, hiru mugikor mota bereiz ditzakegu: oztadarra, eguzkia eta lainoa. Mugikor mota bakoitzeko sozietateak lau kolore desberdin eskaintzen ditu: zuria, beltza, arrosa eta urdina. Bestalde, mugikorren osagarrien artean hurrengo osagarriak aurki ditzakegu: karkasak, zorroak eta babesgarriak. Mugikorren kasuan bezala, sozietateak osagarri bakoitzeko lau kolore desberdin eskaintzen ditu: zuria, beltza, arrosa eta urdina.

Gure kontaketa fisikoaren eta sozietatearen zerrendaren arteko konparaketa burutuko dugu:

Mugikorrak

✓

Mota	Kolorea	Soz.arab.	Ikusk.arab.	Diferentzia	Konklusioa
Oztadarra	Zuria	2.035	2.035	-	OK
Oztadarra	Beltza	2.132	2.132	-	OK
Oztadarra	Arrosa	1.520	1.520	-	OK
Oztadarra	Urdina	1.190	1.190	-	OK
Eguzkia	Zuria	2.548	2.548	-	OK
Eguzkia	Beltza	3.057	3.057	-	OK
Eguzkia	Arrosa	1.854	1.854	-	OK
Eguzkia	Urdina	1.695	1.695	-	OK
Lainoa	Zuria	1.557	1.557	-	OK
Lainoa	Beltza	1.493	1.493	-	OK
Lainoa	Arrosa	1.043	1.043	-	OK
Lainoa	Urdina	994	994	-	OK
Mugikorrak guztira		21.118	21.118	-	OK

✓ OK sozietateak errazturiko zerrendarekin

Osagarriak

✓

Mota	Kolorea	Soz.arab.	Ikusk.arab.	Diferentzia	Konklusioa
Karkasa	Zuria	234	234	-	OK
Karkasa	Beltza	256	256	-	OK
Karkasa	Arrosa	178	178	-	OK
Karkasa	Urdina	134	134	-	OK
Zorroak	Zuria	242	242	-	OK
Zorroak	Beltza	267	267	-	OK
Zorroak	Arrosa	186	186	-	OK
Zorroak	Urdina	157	157	-	OK
Babesgarriak	Zuria	228	228	-	OK
Babesgarriak	Beltza	231	231	-	OK
Babesgarriak	Arrosa	148	148	-	OK
Babesgarriak	Urdina	129	129	-	OK
Osagarriak guztira		2.390	2.390	-	OK

✓ OK sozietateak errazturiko zerrendarekin

Mugikor eta osagarrien inbentario fisikoaren eta sozietateak errazturiko zerrendaren artean ez denez diferentziarik sortzen, buruturiko inbentario fisikoaren alde ondorioztatzen dugu.

23400.3.3) Batezbesteko errotazio ekitaldiaren kalkulua.

Froga honen bidez, sozietatearen jarduera mota eta bilakaera kontuan harturik, sozietatearen batezbesteko errotazio ekitaldia arrazoizkoa den egiaztatu nahi dugu. Hortaz, 2014.12.31an salgai moduan kontabilizaturik dagoen zenbatekoarentzako batezbesteko errotazio ekitaldia kalkulatu dugu ondoren:

		2014.12.31	
Amaierako izakinak	I	4.563.725	✓
Izakin erosketa	II	38.636.051	✓✓
Errotazioa	III=I/II*365	43	

✓OK izakinekin 2014.12.31an izakinen balio narriadura kontuan hartu gabe.

✓✓OK erosketen zenbatekoarekin 2014.12.31an.

2014 ekitaldian izakinen batezbesteko errotazio ekitaldia 43 egunekoa izan da. Sozietatearen jardura mugikorren eta mugikorren osagarrien salerosketa dela eta azken urtean izan duen eskari bolumen handia kontuan harturik, arrazoizkoa iruditzen zaigu errotazio ekitaldi laburra izatea. Izan ere, oso denbora gutxi igarotzen da izakinak biltegian sartzen direnetik hauek banatzen direnera arte.

23400.3.4) Balorazio froga. Hornitzaileengandik jasotako fakturretan oinarrituz, ekitaldi amaieran izakinek duten balioa egiaztatzea.

Izakinen hasierako balioespena, KPO-ko erregistratzeko eta baloratzeko arauen arabera, hauen kostua izango da, eskuratze prezioan gure sozietatearen kasuan. Eskuratze prezioaren barnean sartuko da saltzaileak fakturatutako zenbatekoa, egindako deskontuak eta prezio beherapenak eta antzekoak kenduta eta zorren nominalari erantsitako interesak ere kenduta, eta, bestalde, ondasunak saltzeko moduan kokatuta egon arte egiten diren gastuak gehituta.

Ondorengo balioespena, ordea, izakinen balio bihurtarri garbia izango da, hau eskuratze prezioa baino txikiagoa denean, behar diren balio zuzenketak eginez eta gastu moduan kontabilizatuz galdu irabazien kontuan.

Froga honen helburua bikoitza da. Alde batetik, salgaiak 2014.12.31an aurkezten duten saldoa egiaztatu nahi dugu. Horretarako hornitzaileen fakturretan agertzen den prezioa abiapuntu gisa hartuko dugu, hau baita salgaien kostua. Beste aldetik, sozietateak 2014.12.31an kontabilizatu duen balio narriadura itzulgarria egiaztatuko dugu. Azken hau egiaztatzeko, salgaien salmenta prezioa kostuaren azpitik aurkitzen den konprobatuko dugu, salgaien salmenta fakturek dakartzaten prezioetan oinarrituz.

- Salgaien kontabilizazioa kostuan ondo egin den egiaztatu.

		✓✓	✓		
Izakina	Izakinak 2014.12.31	Kostua	Unitateak	Izakinak ikusk.arab.	Diferentzia
Mugikorrak:					
-Oztadarra		230	6.877	1.581.710	
-Eguzkia		184	9.154	1.684.336	
-Lainoa		135	5.087	686.745	
Osagarriak:					
-Karkasa		22	802	17.644	
-Zorroak		10	852	8.520	
-Babesgarriak		12	736	8.832	
Guztira	4.022.710			3.987.787	-34.923

✓ Hornitzaileen fakturekin egiaztatua.

✓✓ OK 2014. urteko Egoera Orri Finantzarioekin

Ikus dezakegunez, salgaiak 2014.12.31an aurkezten duten saldoa gainbaloraturik dago. Diferentzia honek doikuntza tartea gainditzen duenez (IICI=23.162 euro) hurrengo doikuntza proposatuko dugu:

1-PKI

ZOR		HARTZEKO
34.923	(610001) Izakinen aldakuntza	
	(300001) Salgaiak	34.923

- Sozietateak 2014.12.31an kontabilizaturiko izakinen balio narriadura egiaztatu.

✓

Izakina	Unitateak	Salmenta prezioa	Kostua	Marjina	Balio Narriadura ikusk.arab.
Mugikorrak					
-Oztadarra	6.877	292	230	62	-
-Eguzkia	9.154	224	184	40	-
-Lainoa	5.087	168	135	33	-
Osagarriak					
-Karkasa	802	19,75	22	-2,25	-1.804,5
-Zorroak	852	9,6	10	-0,40	-340,8
-Babesgarriak	736	10,8	12	-1,2	-883,2
Guztira					-3.028,5
Guztira 2014.12.31an					-21.690 ✓✓
Diferentzia					18.661,5

✓ Salgaien salmenta fakturretako salmenta prezioekin konprobatua.

✓✓ OK 2014. urteko Egoera Orri Finantzarioekin

Sozietateak 2014.12.31an kontabilizaturik zuen izakinen balio narriadura gehiegizkoa da, beraz, hurrengo doikuntza proposatuko dugu:

2-PKI

ZOR		HARTZEKO
18.661,5	(390001) Salgaien balio narriadura	
	(6931) Salgaien balio narriaduragatiko galera	18.661,5

Balorazio frogarekin bukatzeko, azpimarratu beharra dago ez dagoela zaharkitutako, akastun edota mugimedu moteleko izakinik.

23400.3.5) Bidean aurkitzen diren izakinen egiaztapena albaranen bidez.

Bidean aurkitzen diren izakinak, sozietateak ekitaldi itxieraren aurretik erosi baina oraindik bere instalazioetara heldu ez diren izakinak dira. Bidean aurkitzen diren izakinak sozietatearen Egoera Orri Finantzarioetan gehitu behar diren jakiteko, sozietateak zein INCOTERM erabiltzen duen jakin beharra dago.

INCOTERM direlakoak ontziratze baldintzak dira, Nazioarteko Merkataritza Ganberak (ICC) Parisen publikatu zituenak nazioarteko salmenta transakzioetan erabiltzeko helbururarekin. Baldintza edo termino hauetako bat aukeratuz, transakzioa burutuko duten bi aldeek, baldintza asko aurretiaz ezartzen dituzte, eta hauen artean aurkitzen da noiz eskualdatzen den izakinen jabetza beste aldeari (FIMA, 2014-2015).

Sozietateak “Free on board” (FOB) terminoa erabiltzen du. Honen arabera, izakin edo produktuen jabetza, ontziratzen direnean eskualdatzen da. Sozietateak beraz, 2014.12.31an bideango izakin moduan bezala kontabilizatu dituen salgaien artean, zenbateko handiena aurkezten duten salgaiak hautatu ditugu, hauen faktura eta albaranekin kontabilizazioa egokia izan den egiaztatzeko.

Izakina	Zenbatekoa	Kostua	Guztira	Sarrera albaranaren data	Faktura data
Mugikorrak:					
-Oztadarra	750	230	172.500	2015.01.07	2014.12.24
-Eguzkia	1.280	184	235.520	2015.01.08	2014.12.23
-Lainoa	235	135	31.725	2015.01.10	2014.12.23
Guztira aztertuta			439.745		
Guztira 2014.12.31an			541.015		✓
Estaldura			%81,28		

✓ OK 2014. urteko Egoera Orri Finantzarioekin

Bideango izakin gehienak sozietateak parte hartzen duen enpresa taldeko matrizeari (Ourmobiles S.A.) egindako erosketei dagozkie eta sozietateak modu egokian kontabilizatu ditu. Izan ere, aztertu ditugun fakturak 2014koak dira eta faktura hauei dagozkien izakinak 2014 ekitaldi bukaeraren aurretik ontzirituak izan ziren Txinan, haien jabetza sozietateari eskualdatuz.

23400.3.6) Erosketa eta salmenta eragiketen etena.

Sozietatearen biltegian izandako sarrerren kontrola burutu dugu, sozietateak 2014 ekitaldiko sarrerren sailkapena ondo burutu duela egiaztatzeko. Horretarako, 2014 ekitaldiko azken sarrera albaranak eta 2015 ekitaldiko lehen sarrera albaranak egiaztatu ditugu. Era honetan, izakinen sarrera dagokion ekitaldian burutu den egiaztatu dugu, bai izakin hauen altak sozietatearen erregistroetan noiz gertatu diren egiaztatuz, bai dagokien pasiboaren erregistroarekin baja noiz gertatu den egiaztatuz.

Hornitzailea	Albaran zb.	Albaran data	Izakinaren alta	Faktura zb.	Faktura data	Faktura zenbatekoa (BEZ gabe)	Kontab. data	Kontabilizatutako zenbatekoa	Ekitaldi egokia
Ourmobiles	RX/72	2014/12/29	2014/12/29	TZ/32	2014/12/30	20.860	2014/12/31	20.860	OK
Ourmobiles	RX/73	2014/12/30	2014/12/30	TZ/33	2014/12/31	51.450	2014/12/31	1.450	OK
Ourmobiles	RX/74	2014/12/31	2015/1/2	TZ/34	2014/12/31	37.250	2015/1/5	37.350	2014
Ourmobiles	RX/75	2015/1/3	2015/1/3	TZ/35	2015/1/3	58.000	2015/1/3	58.000	OK
Ourmobiles	RX/76	2015/1/5	2015/1/5	TZ/36	2015/1/5	79.000	2015/1/5	79.000	OK

A

A) Izakin hauek 2014ko abenduaren 31an jaso zituen sozietateak, baina honek ez zituen 2015eko urtarrilaren 2ra arte altan eman bere erregistroetan. Gainera, albaran honi dagokion faktura, 2015 ekitaldian kontabilizatu zuen, honen sortzapena 2014 ekitaldiari zegokionean. Beraz, hurrengo bi doikuntzak proposatuko dizkiogu sozietateari:

3-PKI:

ZOR		HARTZEKO
37.250	(300001) Salgaiak	
	(610001) Izakinen aldatuntza	37.250

4-PKI:

ZOR		HARTZEKO
37.250	(600001) Izakin erosketak	
7.822	(472) Ogasun Publikoa, jasandako BEZ	
	(4000012) Ourmobiles	45.072

Sozietatearen biltegian izandako irteeren kontrola burutu dugu, sozietateak 2014 ekitaldiko irteeren sailkapena ondo burutu duela egiaztatzeko. Horretarako, 2014 ekitaldiko azken irteera albaranak eta 2015 ekitaldiko lehen irteera albaranak egiaztatu ditugu. Era honetan, izakinen irteera dagokien ekitaldian burutu den egiaztatu dugu, bai izakin hauen bajak sozietatearen erregistroetan noiz gertatu diren egiaztatuz, bai dagokien aktiboaren erregistroarekin alta noiz gertatu den egiaztatuz.

Bezeroa	Albaran zb.	Albaran data	Izakinaren baja	Faktura zb.	Faktura data	Faktura zenbatekoa (BEZ gabe)	Kontab. data	Kontabilizatutako zenbatekoa	Ekitaldi egokia
Eroski	RZ/81	2014/12/28	2014/12/28	TX/41	2014/12/28	66.000	2014/12/28	66.000	OK
The Phone House	RZ/82	2014/12/30	2014/12/30	TX/42	2014/12/30	62.000	2014/12/30	62.000	OK
Eroski	RZ/83	2014/12/31	2015/1/2	TX/43	2014/12/31	54.000	2015/1/2	54.000	2014
Eroski	RZ/84	2015/1/2	2015/1/2	TX/44	2015/1/2	48.000	2015/1/2	48.000	OK
FNAC	RZ/85	2015/1/2	2015/1/2	TX/45	2015/1/2	33.000	2015/1/2	33.000	OK

A

A) Izakin hauek 2014ko abenduaren 31an bidali zizkion sozietateak bezeroari, baina izakinak 2015 ekitaldian eman zituen bajan bere erregistroetan. Gainera, salmenta honi dagokion faktura 2015 ekitaldian kontabilizatu zuen, 2014 ekitaldiari zegokionean. Beraz, hurrengo bi doikuntzak proposatuko dizkiogu sozietateari:

5-PKI:

ZOR		HARTZEKO
54.000	(610001) Izakinen aldakuntza	
	(300001) Salgaiak	54.000

6-PKI:

ZOR		HARTZEKO
	(700001) Izakinen salmenta	54.000
	(477) Ogasun Publikoa, jasanarazitako BEZ	11.340
65.340	(43000010092) Eroski	

6. Eranskina: Bezeroen arloa

Bezeroen arloan erabili den lan paperen erreferentzia zenbakia 23300 izan da.

6.1) Bezeroen arloaren barne kontrola → 23300.1 lan papera

Bezero arloan Guremugikor S.L.-k duen barne kontrola ebaluatzeko, Itziar Azkuek Kontu Ikuskaritza eskuliburuan bezeroen arlorako proposatzen duen galdera sorta erabili dugu (Azkue, I. 2007, 64-65 orriak).

6.2) Bezeroen lan programa → 23300.2 lan papera

Bezeroen arloan erabili dugun lan programa, Itziar Azkuek Kontu Ikuskaritza eskuliburuan bezeroen arlorako proposatzen duen lan programa izan da (Azkue, I. 2007, 65-69 orriak).

6.3) Bezeroen MEMOA → 23300.3 lan papera

Bezeroa	Guremugikor S.L.
Nork prestatua:	K.F.
Nork berrikusia:	K.F.
Lan arloa:	Bezeroak
Ikuskaritza data:	2014-12-31
Titulua:	Ikuskaritza frogak

Ikuskaritza frogak aplikatu aurretik, 2014.12.31an Egoera Orri Finantzarioetako saldoa:

	2014.12.31	2013.12.31
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	9.735.888	5.257.710
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik	7.972.902	4.847.299
2. Bezeroak, taldeko enpresak eta elkartuak	7.931	721
6. Administrazio Publikoekiko bestelako hartzeak	1.755.055	409.690

	ERREF. LP.
BURUTURIKO IKUSKARITZA FROGAK: Arlo honetan burutuko ditugun ikuskaritza frogak ondorengoak izango dira:	
1) Aurtengo eta iazko urteen konparaketa, ohikoak ez diren erlazioak aurkitzeko.	23300.3.1
2) Sozietateari bezero bakoitzak duen saldoa zein den azaltzen duen erregistroa eskatu, bezeroek Egoera Orri Finantzarioetan daukaten saldoarekin konparatzeko.	23300.3.2
3) Kanpo baieztapenak. Garrantzi erlatiboaren arabera, saldo adierazgarrienak hautatu, bere zuzeneko eta idatzizko egiaztapena egiteko.	23300.3.3
4) Bezeroen erantzunen kontrola.	23300.3.4
5) Zirkularizatutako bezeroek erantzun ezean, prozedimendu alternatiboak burutu.	23300.3.5
6) Taldeko bezeroekin sozietateak dituen saldoen xehetasuna eskatu eta aztertu, ondoren taldeko enpresen arteko saldoen txostenaren informazioarekin egiaztatzeko.	23300.3.6
7) Eragiketen etena.	23300.3.7
8) Saldoen antzinatasunaren analisia, dagokion kaudimengabezien hornidura estimatzeko.	23300.3.8
9) Ogasun Publikoarekin sozietateak dituen kredituak likidazioen eredu bidez egiaztatu.	23300.3.9
Iturria: Alonso eta beste batzuk, 2014, 273-297 orriak	

IKUSKARITZA FROGAK

23300.3.1) Aurtengo eta iazko urteen konparaketa, ohikoak ez diren erlazioak aurkitzeko.

Ez dugu froga sustantibo hau burutuko. Izan ere, gogoratu beharra dugu 2013. urtea ez dela konparagarria 2014. urtearekin, sozietatea 2013. urteko uztailen sortu zelako eta konparaketa ez litzatekelako adierazgarria izango.

23300.3.2) Sozietateari bezero bakoitzak duen saldoa zein den azaltzen duen erregistroa eskatu, bezeroek Egoera Orri Finantzarioetan daukaten saldoarekin konparatzeko.

Sozietateak eman digun bezeroen erregistroa honako hau da:

<u>Kontua</u>	<u>Bezeroa</u>	<u>Zor</u>	<u>Hartzeko</u>
43000010092	GRUPO EROSKI DISTRIBUCION S.A.	3.070.799	-
43010001002	THE PHONE HOUSE SPAIN S.L.	1.704.948	-
43010001004	FNAC S.A.	2.077.971	-
43000010200	AUCHAN HIPERMERCADOS S.A.	144.780	-
43000010137	BRIGHTSTAR 20:20 ESPAÑA S.A.U.	-	(105.713)
43000010129	INFOWORK TECHNOLOGY S.L.	166.112	-
43000010070	BINARY SYSTEMS S.L.	162.404	-
43000010016	INFORTISA S.L.	160.741	-
43000010074	DEPAU SISTEMAS S.L.	131.396	-
43000010170	NOVADENDA LOGISTICA S.L.	79.433	-
43000010138	TELECOR S.A.	80.242	-
43000010195	EL CORTE INGLES S.A.	66.382	-
43000010139	COMERCIALIZADORA DE ELECTRODOMESTICOS S.A.	71.427	-
43000010000	BM	99.750	-
43000000222	ARKO S.L.	62.230	-
	GUZTIRA	8.078.615	(105.713)

✓✓OK, 2014. urteko Egoera Orri Finantzarioekin.

Sozietateak erraztu digun bezeroen erregistroaren zenbatekoa eta Egoera Orri Finantzarioek 2014.12.31an aurkezten duten zenbatekoa berdina da. Hala ere, sozietateak emandako erregistro honen zuzentasuna egiaztatzeke asmoz, hurrengo pausuak emango ditugu:

- ✓ Egiaztatu egingo dugu ez dagoela saldo hartzekoduna duen bezerorik: bezero bat aurkitu dugu.

43000010137 BRIGHTSTAR 20:20 ESPAÑA S.A.U.	(105.713)
--	-----------

Saldo hartzekodun hau izakinen itzulketa bati dagokio, hau da, 2014.12.31an sozietateak abonatu faktura bat zeukan ordaintzeko. Doikuntza tartea (IICI=23.162 euro) baino zenbateko handiagoa duenez, saldo honen birsailkapena proposatu dugu:

7-PKI:

ZOR		HARTZEKO
105.713	(43000010137) Bezeroak	
	(41000010137) Hartzekodunak	105.713

- ✓ Egiaztatu bezero orokorrik existitzen ez dela: ez dago.
- ✓ Egiaztatu ez dagoela saldorik Administrazio Publikoekin: ez dago.
- ✓ Egiaztatu saldo arrarorik ez egotea: ez dago.
- ✓ Egiaztatu taldeko enprekin saldorik ez egotea: ez dago.

Behin sozietateak errazturiko bezeroen erregistroaren fidagarritasuna ziurtatuta, zirkularizatuko diren bezeroak hautatu ditugu.

23300.3.3) *Kanpo Baieztapenak. Garrantzi erlatiboaren arabera, saldo adierazgarrienak hautatu, bere zuzeneko eta idatzizko egiaztapena egiteko.*

